

ELKARRIZKETA: XAMAR • ESPERIENTZIA: IKASTETXETIK HERRIAREN  
EZAGUTZA TRANSMITITZEN • GALDEIDAZUE: FRED A. J. KORTHAGEN •  
MIARRITZEKO ITSAS MUSEOA • ATZEKO ATETIK: MAITE IDIRIN

**hh**  
hik hasi

**159**

4 EURO • 2011KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**Kataluniako hezkuntza**  
eraberritzailera bidaia

+5 urte

## JOSETXO HARGINA

Mixel Murua • Antton Olariaga



Bazen gizon indartsu bat hargina zena lanbidez. Jose txo izena zuen eta herrian denek miresten zuten oso indartsua zelako. Gainera, gizon jatorra eta bihotz onekoa zen. Herriko alkatea berriz, harroa eta txepel hutsa zen.

+8 urte

## LETRAK ELURRETAN

Antton Kazabon • Jokin Larrea




Denis aitonarekin bizi da mendian, gustura asko gainera. Baina aitonak badu kezka bat: Denis ez da eskolara joatean, baseritik urruti baitago eta horregatik, oraindik ez daki ez idazten ez irakurtzen.

+8 urte

## ZORIONAK, MARKO

Eneko Bidegain • Marko Armspach



Karramarro ume bat da Marko, uretan eta bere lagunekin (Oskar, Txarti, Mimi, Rita...) jolasean ibili nahi duena. Hala ere, non-nahi daude arriskuak bera bezalako karramarro ausart baina burugabe batentzat...

# HELDU LITERATURARI

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

elkar

Unibertso paraleloetan barrena,  
gizartearen historia  
ezagutzeko liburuak



Fernando Morillo

**MULTIBIDAIARIAK**



**BILDUMA BERRIA**

we security trackLocation();

0100101010101010  
0100101010101010

# aurkibidea



**8**  
gaia

## KATALUNIAKO HEZKUNTZA

“Eskola katalana izan nahi dugu, bai edukietan eta bai hizkuntzan; baina gaur egun ez daukagu eskola katalanik, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ez baitigu horretarako aukerarik ematen”...



**15**  
elkarrizketa

## XAMAR

Juan Carlos Etxegoien izenez bataiatu arren, Xamar ezizenez ezagunagoa da irakasle nafar hau. Garraldako Xamarrena etxekoa izatetik datorkio izena, ohitura zaharra segituz.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## KATALUNIAKO HEZKUNTZA

ERABERRITZAILERA BIDAIA

**18** elkarrizketa

## XAMAR

**26** esperientziak

Ikastetxetik herriaren ezagutza transmititzen

**32** galdeidazue

Zer da garrantzitsua irakasleak ongi prestatzeko?

Fred A. J. Korthagen

**35** berriak

**40** nora joango gara?

Miarritzeko Itsas Museoa

**42** Atzeko atetik

Maite Idirin

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Santa Eulalia de Riuprimer eskolan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-05-19). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
**HIK HASI** egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala ekaina

## *Eleaniztasuna bai, baina zein eta nola?*



**Hainbat eleaniztasun mota daude, eta denek ez dituzte ondorio berdinak. Hizkuntzarekiko lortu nahi diren helburuak zehatz finkatu eta horiek lortzen hobe lagunduko lukeen eleaniztasun motan sakondu beharko genuke.**

Hautatu beharko bagenu eskola komunitatea gehien kezkatzen duen gaia, aukeren artean, ezbairik gabe, eleaniztasunaren gaia legoke.

Eskola esparruaz gain, komunikabideetan askotan hitz egindako gaia da, bestalde: hauts asko harrotutakoa.

Noraino sakondu ote da, baina, eleaniztasunaren izaeran? Zenbateraino dira ezagunak eleaniztasun motak? Eta zenbat hausnartu ote da gure beharrak hobeto aseko dituen eleaniztasun mota hautatzeko, diseinatzeko?

Ipar Hegoa Fundazioak *Irakaskuntza kulturantzatasuna/Irakaskuntza eleaniztasuna* jardunaldiak antolatu zituen Donostian eta Iruñean gaiari argi pixka bat gehiago egin asmoz.

Han, adituek, eleaniztasun mota desberdinen gainean aritu ziren, eta bakoitzak ekartzen dituen ondorioak aurkeztu zituzten. Eleaniztasun gehigarriaren kontzeptua nabarmendu zen.

Izan ere, zergatik gure ikasleek eskolan gutxienez 14 urte igaro ondoren,

askok ez dituzte oinarrizko gaitasun linguistikoak bereganatzen euskaraz eta ingelesez? Zerbait gaizki egiten ari garen seinale!

Hezkuntza administrazioentzat hizkuntza trataera ildo estrategikoa bihurtu da, ikasle eleaniztunak nahi omen dituzte. Eta ezarri, ezarri dizkigute beren hizkuntza ereduak, duda-mudako irizpide pedagogiko eta zientifikoetan oinarrituak.

Hala ere, eleaniztasunaren esparruan eta hizkuntza trataeren arloan, administrazioek egindako proposamenak –TIL, Hello, Hirueleko ereduak eta abar– eleaniztasunari heltzeko moduen artean bat besterik ez dira. Ez bakarria, ez egokiena, hortaz.

Zorionez badaude beste proposamen batzuk mahai gainean, Euskarenen Kontseiluaren *Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen*, kasu.

Eleaniztasunak dituen punta anitzei begira, gaur egun ikerketek eta eskarmentuek ondorioztatu dute emaitzak

lortzekotan murgiltze eta mantentze sistemen ildoan sakonduz lortuko direla.

Hizkuntzen ikaste/irakaste prozesuak ezin dira matematikoki antolatu landu behar diren hizkuntza kopuruen arabera zatituz denborak eta antolaketak. Ondorioz, ingelesari ordu gehiago emateak –egiten dena ordu gehiagoz luzatzea, alegia–, ziur bermatzen duen bakarria murgiltzeari eta mantentzeari egiten dion kaltea da. Ingelesarimesede egingo ote dion ikustekedago.

Munduak herritar eleaniztunak behar ditu. Euskal Herriko jendarteak eleaniztun euskaldunak behar ditu. Euskaldunok munduan ulertuak izan nahi dugu eta mundua ulertu nahi dugu. Euskaldun gisa adierazi nahi dugu. Eleaniztasunaren gaian asmatzen badugu, guk baino gaitasun komunikatibo handiagoak eta hobeak dituzten herritarrek izango ditugu.

Iruñean entzun zen eta berriro diogu: eleaniztasuna bai, baina ez edonola!

# kronika

Frantziako Hezkuntza Sailak Hizkuntza gutxituetako CAPES azterketak egingo ditu datorren urtean, nahiz eta hasiera batean kontrakoa esan zuen. Era horretan, irakasle euskalduna izateko azterketa gainditu nahi duten Ipar Euskal Herriko irakasle gaiek datorren urteko azterketa egiteko aukera izango dute. Hasiera batean, 2012an irakasle berriak hartzeko azterketarik ez zuela egingo jakinarazi zien Frantziako Hezkuntza Sailak hizkuntza gutxituen CAPESetako arduradunei, inolako argibiderik eman gabe. Era horretan, euskal ikasketetako ikasleek urte osoa galduko lukete, eta ez litzateke irakasle euskaldun gehiago izango. Baina azkenean, Frantziako Hezkuntza Sailak atzera egin du eta azterketa egingo da. Ipar Euskal Herriko irakasle euskaldunei bezala, erabaki honek Kortsika, Britainia, Okzitania eta Kataluniako irakasleei eragiten die.



Berria

## Euskal Herriaz ari diren ikasliburuak kentzeko agindu dute Nafarroan

Nafarroako Auzitegi Nagusiak Euskal Herria aintzat hartzen duten ikasliburuak kentzeko agindua eman du, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 4an hartutako erabakia ontzat emanez. Gobernuaren erabaki horren aurka helegitea jarri zuten Ikastolen elkarteak eta Elkarlanean argitaletxeak, baina Auzitegi Nagusiko ebazpenak dio ikasli buru horiek “itxuraldatu” egiten dutela Nafarroako errealitate politikoa, historikoa, geografikoa, soziala, juridikoa eta naturala. Liburu horiek Nafarroa Euskal Herrian kokatzen dutela uste du auzitegiak, eta hori eginez, hainbat lege hausten dituztela, Espainiako Konstituzioaren arabera, Nafarroa ez baitago “Euskal Herria izeneko erakunde baten barruan”.

Ikastolen Elkarteak eta Elkarlaneanek sortutako Ikaselkar edizio taldeak aldiz, “epaia ideologikoa eta politikoa” dela salatu du, eta orain arteko bideari eutsi egingo diola berretsi du. Edizio taldeak, ordea, aurrerantzean ez du Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarik jasoko epai honen ondorioz, eta aukeratu beharreko liburuen zerrendatik kanpo gelditu dira, gainera.

Ikaselkarrek, alabaina, adierazi du orain arteko lan ildoari eta konpromisioari eutsiko diotela: “Eskola liburuetan mantendu egingo ditugu azken urteetan hezkuntza komunitatearen gehiengo zabalak euskal curriculumaren inguruan landutako gogoeta prozesuan adostutako edukia”.

Eduki horiek Nafarroako Auzitegi Nagusiarentzako “zehaztasun zientifiko gutxi” dute, “legeak zehaztasun zientifikoa eskatzen du ikasliburuetan. Zehaztasun gutxi edo batere ez da topatzen, ordea, etxe horiek argitaratutakoetan”, epaiaren arabera. Aldiz, Ikaselkarrek erabakia gaitzetsi du: “Errealitate soziologikoak, historikoak, kulturalak eta abar kontuan hartu gabe, zorrotasun zientifikoa errealitate juridiko administratibora bakarrik mugatzea zuzenean zientziaren aurka jotzea da. Justiziaren izenean egitea, gainera, eskandalagarria iruditzen zaigu”.

**"Haurrak dira esperantza eta horiei behar zaizkie baloreak irakatsi. Ez bakarrik hizkuntza, hark gordetzen dituen baloreak ere bai; idealtasunez eta ez praktikotasun soilez"**

**Aurelia Arkotxa**



## **Hilabeteko greba eta gero akordioa lortu dute jangeletako langileek**

Hilabete luzeak daramatzate Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoetako jangeletako langileek borrokan beren lan baldintzak hobetzeko, eta azken hilabete luzean greba egin dute eskaintzen duten zerbitzua- ren kalitatea hobetzeko, euren lan baldintzak duintzeko eskatuz eta prestakuntza handiagoa exijituz. Azkenik, maiatzaren 26an ELA eta LABek patronalarekin akordiorako oinarria sinatu zuten.

Hiru urte daramatzate langileek lan hitzarmenik gabe, eta "gainezka" daukela salatu dute. Gauregun, eskoletako ikasleen % 80 inguru gelditzen da eskolako jangelan, azken hamar urteetan hirukoiztu egin baita jantokietan gertatzen diren ikasleen kopurua: 30.000tik

93.000ra. Aldiz, jangeletako begiraleek salatzen dutenez, kupoak ez dira neurri berean egokitu, eta begirale bat legez 36 hurrez ardura badaiteke ere gehienez, gaur egun 45 hurrez ere arduratzen dira. Horregatik, euren zerbitzua hobetzeko baliabideak eskatzen dituzte, prestakuntza jasotzea eta ordutegia zabaltzea batetik, eta euren soldatak behargin publikoenekin parekatzea. Azkenik, soldatak % 97,5 parekatuta bukatu zuten greba.

ELA, LAB eta UGT sindikatuek deitu zuten grebara, eta patronalarekin bilerak egin zituzten. EHIGE Euskal Herriko Gurasoen Elkartearekin ere bildu dira, euren egoeraren berri emateko. EHIGEk konponbidea "beregala" bilatzeko eskatu zien jangeletako zerbitzuaz arduratzen diren enpresei eta langileen ordezkari diren sindikatuari, eta babesa agertu zieten hainbat eskaeratan.

Sindikatuak Eusko Jaurlaritzarekin ere bilera eskatu zuten, baina Hezkuntza Administrazioarako sailburuorde Marisol Estebanek horretarako beharrik ez zegoela adierazi zien, eta "euskal ikasleak bahitu modura erabiltzeaz urteko" exijitu zien sindikatuari. Bai jangeletako langileek eta baita Sortzen Ikasbatuazek ere gaitzetsi egin zuten Jaurlaritzaren jarrera, grebaren izaera desitxuratzen saiatu baita.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hezkuntzaren gorentasuna nabarmendu du Espainiako Estatuan egin den ikerketa batek, eta Etikarako Profesionalen erakundeak egindako txosten horren arabera, lau herrialde hauek saihesten dute ondoen eskola goizegi uztea Espainiako Estatuan, 17 urteak konplituta eskolan jarraitzen duten ikasleen tasa %95,5ekoa baita bertan. Ondorioz, eredu garritzat jo dute Hego Euskal Herriko eskolaratze arrakasta datuak. Azterketan aintzat hartu dituzte ikasleen emaitza akademikoak eta administrazioek hezkuntzan egiten dituzten gastuak, bi aldagaiak erkatuz ondorioak ateratzea baitu xede hezkuntza politiken ikerketak, eta lehen postutetan daude lau herrialdeak. Hezkuntza gorentasunaren rankigaren arabera, gastuaren eraginkortasuna aztertzen duen puntuan, Gaztela Leoneko erkidegoaren atzetik zehazki Hego Euskal Herriko lau herrialdeak daude. Hego Euskal Herriko zentro publikoetako eta itunpekoetako ikasleen emaitzak antzekoak izan dira ikerketa honetan.

# GAIA

## Kataluniako hezkuntza eraberritzailerara bidiaia







## Hezkuntza sailaren erronka: porrotari aurre egingo dion eskola katalana sendotzea

**Kataluniako lau eskola eraberritzaile ezagutu ditu Hik Hasik 25 irakaslerekin egindako bidaia pedagogikoan; ikaslea heziketaren erdingunean jartzea da guztien gakoa. Kataluniako hezkuntza sistemaren berri ere izan dugu Generalitateko Hezkuntza Kontseilariaren eskutik.**

“Eskola katalana izan nahi dugu, bai edukietan eta bai hizkuntzan; baina gauregun ez daukagu eskola katalanik, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ez baitigu horretarako aukerarik ematen”. Hitz horiekin deskribatu zuen Irene Rigau Kataluniako Hezkuntza kontseilariak hango hezkuntza-sistemaren errealitatea Hik Hasik eginiko bidaia pedagogikoari Generalitatean harrera egin zionean. “Beraz, hezkuntza katalanaz ez, baizik eta Kataluniako hezkuntzaz hitz egin beharko dizuet”. Argi azaldu zituen gaur egun Kataluniako hezkuntza sistemak dituen hutsuneak eta helburuak: “Katalanak, hizkuntza eta izaera bezala, lehentasuna izango duen hezkuntza sistema nahi dugu; eskola porrotari aurre egingo diona, eta ikasle berrien etorrera ondo kudeatzen asmatuko duena”.

Gaur egun Convergència i Unió alderdiak daruma Conselleria d'Ensenyament edo hezkuntza departamentua, 2010eko gobernu hauteskundeak CiUk irabazi ostean. Irene Rigau, Magisteritzan eta Psikologian formatua berau, da kontseilaria, eta berarekin batera, Lluís Font Hezkuntza politikarako

idazkariak eta Pere Mayans Hezkuntza politikarako zuzendariak egin zieten harrera Euskal Herritik Kataluniara joandako 25 irakasleko taldeari.

CiUk Gobernua berreskuratu aurretik, alabaina, azken zortzi urteetan ERC-PSC-ICVren koalizioak gobernatu du Katalunian eta garai horretan Kataluniako Hezkuntza Legea idatzi eta onartu du Parlamentak, ERC, PSC, ICV eta CiUren adostasunarekin. 1981ean berreskuratu zituen Kataluniak hezkuntza konpetentziak, baina 2009a arte ez du Kataluniak hezkuntza lege propioirik izan.

Lege berri horrek, “murgiltze linguistikoa blindatzen duen eskola katalanaren eredu berria” eskaini nahi du, nagusiki bi erronka dituena: batetik, etorkin uholdeari hezkuntza duina eskaintzea; eta bigarrenik, eskola-porrotaren tasak jaitea, Rigauaren hitzetan azken hamarkadan hezkuntzak atzerapausoak egin baititu Katalunian. Alabaina, tradizio pedagogiko sakoneko herrialdea da. Iragan mende hasierako Errepublika garaitik eta bereziki frankismo garai hitsetan eskola eraberritzailea eta autoritarismoaren kontra-



# G

# Kataluniako hezkuntza

koa bultzatuko zuen pedagogo ugari ernaldu zen Katalunian. Ferrer Guardia eskola modernoaren sortzailea, Alexandre Gali eraberritze pedagogikoaren funtsezko eragileetako bat, Rosa Sensat, eta 60ko hamarkadan bere ize-na eramango zuen irakasle eraberritzaileen mugimenduaren fundatzaile Marta Marta eta Maria Antonia Canals pedagogoak dira horietako batzuk.

Une honetan ere badaude eskola eraberritzaile ugari Katalunian, eta horietako lau bisitatu ditu Hik Hasik eta 25 irakasleko taldeak apirilean. Baina datu orokorrak kontuan harturik, eskola porrotaren tasak oso altuak dira gaur egun, 2010eko datuen arabera, hain zuzen, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen %30 DBHra igarotzen dira oinarritzko jakintzak menperatu gabe, bereziki irakurmen eta ulermen arazoekin, eta bigarren hezkuntzan ere porrotaren tasa %30 ingurukoa da. Kopuru horiei aurre egiteko Rigaueren departamentuak harturiko neurriek irakasleei eragingo diete lehenik eta behin, irakasleen formazioan sakondu nahi baitu bere sailak, eta era berean, lehen hezkuntzako curriculumak moldatu dute, gehiegi kargatu gabe. "Haurrari buruz dugun ikuspegia aldatu behar dugu: haurra tratatu izan dugu beti haurra izan behar balu bezala, eta betiereko

hautzaro batean bizi beharko balu bezala. Hautzarotik helduarorako laguntza hau esfortzuekin eta estimulazioarekin egin behar dugu".

Une honetan Kataluniako hezkuntzak duen beste erronka nagusia ikasle berrien etorrerari aurre egitea da. Ikasturteko 15.000 ikasle berri jasotzen dituzte Kataluniako eskolek, hau da, 15.000 ikasle etorkin. Eta izan dira 19.000 ikasle berri jaso dituzteneko ikasturteak ere. Hezkuntza sistema ikasle berri hauen beharretara egokitztea eta ikasle etorkin hauek sistema baliatzea da Rigauentzat erronka.

Hau guztia, baina, krisi garaian egitea egokituko zaio Rigaueren departamentuari, eta bere saileko Lluís Fontek adierazi zuen bezala, borobila karratu egin beharko dute, hau da, "lehenengo baliabide guztiak eskaini nahi ditugu diru gutxiagorekin".

## Katalana, eskolako hizkuntza eta kohesio hizkuntza

Guztira 1.150.000 haur daude Kataluniako eskoletan, eta 155.000 dira etorkinak, 168 herrialdeetatik Kataluniarra joanak (marokoarrek eta latinoamerikarrek osatzen dituzte talde handienak). Haur horien artean 200 hizkuntzatik gora hitz egiten dituzte. Guztientzako katalana da eskolako hizkuntza

nagusia, 80ko hamarkadan Gobernuak hala erabaki baitzuen eta ondorioz, umeak ezin dituzte ez eskoletan ez geletan hizkuntzaren arabera bereizi. Eta horri esker lortu da gaur egun Kataluniako hiritarren artean kohesioa egotea, Gobernuak kideen arabera.

Pere Mayans Hezkuntza politikako zuzendariak azaldu zigun Kataluniako eskolen hizkuntza errealitatea, hau da, eskolan sartzen diren haur gehienek ez dutela eskolako hizkuntza –katalana– ezagutzen, eta eskolaren helburua kohesio hizkuntza katalana izango duten hiritar eleanitzak sortzea dela. "Katalanez eta gaztelaniaz kompetentzia komunikatiboa izan behar dute ikasleek, eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean. Baina nahiz eta haur guztientzat sistemak helburu berdina izan, zenbait haurrekin modu desberdinean jokatu behar dugu katalana irakasteko garaian, ez baita familiarrik datorkien hizkuntza. Horixe da gure erronka".

Ikasleria honi harrera egitea da hezkuntza sailak aurreko legegintzaldietatik ezarria duen lehentasuna, eta lehendik etorkinei harrera egiteko proiektu espezifikorik ez duten zentroen kasuan harrera-gelak sortu zituzten 2004an, 1.100 harrera-gela eta 1.050 irakasle 20.000 ikaslerentzat. Harrera-gelak dira gaur egun ere hezkuntza politikako zuzendaritzaren ikurra. Eta hauen ondoan, ikasleak familiarrik dakarren hizkuntzari eusteko ere baliabideak jartzen ari dira.

Baina katalana ez dadin soilik eskolako hizkuntza izan, Pere Mayans entaldek ingurune-planak sortu ditu, eskola-orduetatik kanpoko jardueretan ere katalana erabil dezaten haur eta gazte txoek, "haurrak gehien garatzen eta hezten diren alorrak baitira".





## Lau ikastetxe berritzailetara bisita Ikaslea heziketaren zentroan jartzea da gakoa

Lau ikastetxe berritzailetara egin zuen bisita HikHasik apirilean, 0-3 bitarteko Cavall Fort eskolara San Cugat del Vallesen; 3-8 bitarteko Els Pinetons eskolara Ripolleten; 3-12 bitarteko El Roure Gros eskolara Santa Eulalia de Riuprimerren; eta bigarren hezkuntzako Sunion ikastetxera Bartzelonan bertan. Eskola publikoak dira lehen hiruak eta erdi kontzertatua-erdi pribatua laugarrena. Proiektu oso ezberdinak garatu dituzte lau ikastetxeek, baina guztiek ezaugarri bera dute oinarrian: haurra edo nerabea jartzen dute eskolaren zentroan, eta bere beharren arabera moldatzen dute sistema, beti ere autonomia, motibazioa eta elkarbizitza garatzeko.

Sorrera diferentea izan zuten lau ikastetxeek, Cavall Fort, Els Pinetons eta Sunion proiektu zehatz batekin sortu ziren, lehenengo biak sare publikoaren barruan eta bigarrena pribatuan, Pep Costa-Pau pedagogoarekin ekimenez. Cavall Fort eta Els Pinetons sortzeko ERC, ICV eta PSCren gobernu garaian eskola berriak egiteko zegoen ekimena baliatu zuten irakasle taldeek Rosa Sensat irakasle elkartearen barruan hainbat urtetan mamituriko eztabaida eta hausnarketa errealitate bilakatu eta eskola-proiektua gauzatu ahal izanaz zerotik hasten zen eskola berri batean. El Roure Gros ikastetxearen kasuan, aldiz, Carme Alemany irakaslearen ekimenez gauzatu da hain berezi egiten duen proiektua, eskola berean urte mordoak egin ostean joan baita eraldatzen proiektua gaur egunekora iritsi arte.

Ikastetxe guztien oinarrian eztabaida eta hausnarketa pedagogiko sakona eta etengabea dago, irakasle taldeak berebiziko garrantzia dauka eta eskola haur, nerabe eta helduak bizitzeko eta elkarbizitzeko leku gisa ulertzen dute. Egiturari dagokionez ere, badute antzekotasun bat: gardentasuna; gela barruetan egiten dena ikusten da kanpotik.

Bakoitzak bere baliabideekin, baina guztiek proiektu pedagogiko sendo batekin erakutsi digute Oti 18 urtera bitartean hezkuntza eraberritu daitekeela.

### CAVALL FORT: Lan giro onaren eredu

Hurrek egarria dutenean ura edatea edo komunera joateko premia dutenean komunera joatea bezalako oinarriko premiak ez dira betetzen eskola askotan, ikastetxeak haurren premiei erantzuteko baino gehiago irakasleen edo administrazioaren lana errazteko moduan baitaude antolatuta. Sant Cugat Del Valleseko Cavall Fort hauteskolak oso bestela jokatu du: "Irakaslea bigarren planoan jarri dugu eta haurra lehenengoan; euren beharrak ahalik eta ondoen asetzeko moduan egituratu dugu gure lana", azaldu zigun Rosa Ferrer eskolako koordinatzaileak. "Baina irakaslea bigarren planoan jartzeak ez du esan nahi irakasleak lan gutxiago egin behar duenik; kontrakoa, uneoro haurren beharretan arreta jar-



tzea eskatzen du honek". Ferrerrek ikaragarriko entusiasmoarekin hitz egin du berak koordinatzen duen haur eskolaz.

Cavall Fort haur eskolan 0-3 urte bitarteko 36 haur daude, eta gela guztietan behar bereziak dituzten haurrak dituzte. "Eta gu oso gustura gaude horrekin, haurrentzat, hezitzaileontzat eta familientzat ikaragarriko irakaspenera baita". Espazioei dagokionez, elkarren

artean konektatuak dauden gelak, gela guztietatik irits litekeen espazio irekia, erabilera anitzeko psikomotritate gela, tailerra eta familientzako halla ditu eskolak.

Eskolara sartu eta lehen begiratuan bi gauzek ematen dute atenzioa: Bate-tik, irakasle eta hezitzaileen artean dagoen giro onak; eta bestetik, gurasoak geletan ikusteak, haurra hezkuntza sistemaren erdian jartzearekin batera bi

# Kataluniako hezkuntza

horiexek baitira haur eskola honen ezaugarriak. Haurrak, bitartean, aurrea eta atzera mugitzen dira askatasun osoz. “Lan taldearen barruan giro ona edukitzeari hasieratik eman diogu garrantzia, ezinbestekoa baita guretzat. Gure arteko harremana ahalik eta humanoena izan behar da, lasaia. Nola irakatsiko diegu haurrei elkar entzuten, elkarbizitzen edo elkarri laguntzen helduok geure artean ez badugu hori egiten?”. Azken batean, haurrekin eta familiekin batera, irakasle taldeak eramango du aurrera eskola proiektua. Lan taldean arnasten den giro ona haurrengana eta familiengana transmititzen da, ezinbestean.

Familiek, gainera, rol garrantzitsua jokatzeko dute Cavall Forten. Esan bezala, gurasoak euren haurrak dauden gela sartzen dira, sofan eseri eta kafe bat hartzen dute haurrekin edo haurrei begira edo beste gurasoekin. “Ezin da bestela izan, euren haurrak dira, eta hau zentro publiko bat da, gardentasuna erabatekoa da”. Halaber, zentroarentzat urrezko araua da familiak ez epaitzea ezta haiei buruz gaizki hitz egitea ere. “Oinarritzeko gauza dirudi, baina leku askotan ez da betetzen, eta horrek, nahi gabe bada ere, giroa txaritzen du”.

Ferrentzat irakasle izatea munda ikusteko eta ulertzeko modu bat da, “konpromiso soziala eskatzen duen jarrera bat da”. Koordinatzaileak ikaragarriko energia eta konpromisoa transmititzen du bere lanaz mintzatzean. “Eskolan lanean ari garen orduetan 100% egon behar dugu irakasleok, hori baita haurrek merezi dutena. Kexatu behar badugu, lana bukatutakoan egingo dugu, baina beti eztabaidatu eta gauzak hobetzeko ideiak jarri behar ditugu mahai gainean, gure lana eta haurren heziketa ahalik eta ondoen egiteko modu bakarra da hori”.

## ELS PINETONS: Hiru eskola txiki, eskola handi baten barruan

Cavall Fort bezala, eskola berria da Ripolleteko Els Pinetons; duela bost urte sortu zuten Carles Gracia eta beste bost irakasleek, ERC, ICV eta PSCren gobernu garaian eskola publiko berriak sortzeko egon zen aukera baliatuz. Hain zuzen ere, krisiaren aurretik Katalunian eraiki zen azken eskola publiko izan zen. “Eskola honen oinarrian urte askotako eztabaida pedagogiko handia egon da, serioa eta sakona, eta mantendu egiten dugu eztabaida hori, gauzak hobetzen joateko eta taldean elkarrekin urratsak egiteko”. Gracia bera da ikastetxeko zuzendaria, eta aldi berean 3-5 urteko gelan eskolak ematen ditu.

Hiru lerroko eskola da Els Pinetons, eta 3 eta 10 urte bitarteko haurrak dituzte. Baina eskola honen ezaugarria da hiru lerroek eskola txiki bana bezala funtzionatzen dutela, Aire, Aigua eta Terra dira eskola horiek, eta ez dute modu paraleloan funtzionatzen, baizik eta bertikalean, eskola bakoitzak gutxieneko autonomia bat dauka. “Haur bakoitzaren nortasuna ahalik eta ondoen errespetatzea da helburua, eta hori ondoen eskola txikietan egiten da,

haur bakoitzak –pertsone bakoitzak bere nortasuna sendo eraikiz eraikiko baitu kolektiboa ere”.

Eskola bakoitzaren barruan taldeak bereizten dira, hiru zikloetan -3tik 5 urte bitartekoak *petits* taldekoak dira; 6 eta 7koak *mitjants* eta 8tik 10era bitartekoak *grans* adin desberdinetako haurrek taldeak osatzen dituzte, eta hauek haurraren erreferentzia taldeak izango dira. Taldeak asanblada bidez erabakitzen du ze kezka dituen eta ze gai jorratu nahi dituen, eta gai horiek proiektu bidez lantzen dituzte.

Proiektuez gain, espazioak dira eskola honetako ikurrak, hau da gela arruntez gain, lanerako espazio batzuk dituzte non jolas sinbolikoak egiten dituzten, edo lan logiko-matematikoa, edo esperimendazio lanak, sormenezko lanak... Haurrek eurek erabakitzen dute sei espazioetatik zeinetan jorratu nahi duten aste horretako espaziolana. Espazio hauetan haurrak eurak dira garatu nahi duten lana erabakitzen dutenak, aldiz, irakasleak bideraturiko lanak tailerretan egiten dituzte.

Espazioetako eta tailerretako lan hauetan guztietan sormen artistikoak eta hizkuntzak leku berezia hartzen dute. Zeharka, hizkuntza katalana lantzen dute haurrek, gaztelaniadun familiatako haur asko baitaude Els Pinetonsen; “Eguneroko ohiko ekintzetan katalana erabil dezaten da gure helburua, ondoren hizkuntza hau eskolaz kanpoko ekintzetara estrapola dezaten”.

Goiza hasteko irakurketa saioen ondotik, espazio eta tailer hauetan, behaketa eta esperimendazioaren bidez ikasten dute haurrek, argitaletxeetako ikaslibururik erabili gabe “eta besteekiko harremanetik. Besteak horren ba-





rruan ez daude bakarrik irakasleak, baita euren kideak ere. Guretzat ikasketako funtsa da berdinen arteko ikasketa, haurren arteko harremanak garrantzia handia du". Berdinen arteko ikasketa da Els Pinetonsen beste ezaugarrietako bat, eta honi loturik, eskola haurren bizitzaren parte bezala ulertzea funtsezko jotzen du Graciak, "ez da bizitzatik aparte dagoen zerbaite berezia".

Els Pinetonsen lantzen duten pedagogiaren ondorio da haurrek hazten doazen neurrian gero eta inposizio gutxiago onartzen dituztela, "azalpena eta argudioak eskatzen dizkizute, ea zergatik diren gauzak modu batean eta ez bestean", eta Graciak ziur du hori dela hurrengo belaunaldiak hezteko bidea. "Gakoa da irakasleak prest egon behar duela haurren erantzuna jasotzeko, haurra entzun eta umiltasunez onartu behar du hark esaten diona".

### Askatasuna, parte-hartzea, konpromisoa eta esfortzua

Eskolaren eraberritzea beharrezko jotzen du Graciak, "baina horrek ez du esan nahi uneoro aldatzen eta esperimintatzen aritu behar dugunik; baizik

eta uneoro hausnartzen eta debatitzen aritu behar dugula, haurren erantzutako onena zer den ikusteko". Alabaina, eztabaida horretan zenbait ezaugarri "blindatu" beharrekoak dira Graciarentzat: "Askatasuna; haurren, familien eta irakaslearen parte-hartzea; konpromiso profesionala eta esfortzua ezinbesteko baldintzat ditugu eskola honetan". Eta horiek aurrera eramateko unean zuzendariak dio haurrek ez direla problema, ezta familiak edo administrazioa ere, "benetako zailtasuna irakasle kolektiboan bertan dago: begirada humanagoa behar dugu; eta zuzendaritzataldearen egitekoa irakasle berriak proiektuari atxikitzea da, ideiak eta konpromisoa ekar ditzaten". Eskola publikoa izaki, nahiz eta ikastetxe berria izateagatik irakasle kopuru finkoagoa edukitzeko eskubidea duten, ikasturtero irakasleen %30 aldatu egiten da, "irakasle asko daukagun proiektuagatik etortzen diren arren, beste askok ez dute ezagutu ere egiten, eta haiekin gure egitasmoa partekatzeke denbora asko inbertitzen dugu kurso osoan zehar". Gaur egun 24 irakasle eta erdiko lantaldea du Els Pinetonsen.

Irakasle guztiek astelehen arratsaldeetan bi orduko eztabaida pedagogikoak izaten dituzte, gai bat hartu eztabaidatu eta erabakietara iristeko. Erabaki horiek, sarri, ez dute bat egiten gauregun CiU garatzen ari den hezkuntza sistemarekin, "banakoaren eskubideak ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko daukaten eskubide kolektiboren gaineratik jartzen ari baitira", eta horren aurrean, ez dute desobeditzeko aukera baztertzen, "beti ere haurren onerako dela ikusten dugun kasuetan".

Cavall Forten bezala, gurasoek zeresan handia dute Els Pinetonsen proiektu honetan, eta nahi dutenean sar litezke eskolara, behatzeko nahiz parte hartzeko. "Proiektu hau familiekin partekatzea funtsezkoa da aurrera egingo badu, azken batean haur hauen heziketaren ardura eurena baita". Gurasoen batzordeez gain, familiek parte hartzeko foroak dituzte eskolan.

Eskolan sartzean atentzioa ematen du eskolaren egitura arkitektonikoak eta estetikak, modernoa da guztia, berria eta zaindua, espazio eta tailerrak materialez beteak. Eskola sortzeko unetik beretik zuzendaritza-taldeak proiektu arkitektonikoan parte hartzeko nahia azaldu zuen, "gu garelako eskola batek ze premia dituen ondoen dakigunak". Hala bada, hormetan beirate handiak, ateetan barrukoa zein kanpokoak ikusteko leihotxoak, pasillo zabalak eta materialez beteriko espazioak dituzte Els Pinetonsen. Eta egitura hauetan barrena, aurrera eta atzera, gela batetik bestera lasai ederrean dabilta haurrek, orain piramide bat egiteko material bila, edo bibliotekan dokumentazioa kontsultatzeko, taldean lan eginez eta hitz eginez, norbere autonomia eta motibazioa garatuz.

# Kataluniako hezkuntza

## EL ROURE GROS: “Ezagutu, deskubritu eta ikasi elkarrekin, zientziaren bidez”

Hik Hasiren bidaiaren parte hartu zuten irakasleak erabat liluraturik irten ziren Ripolleteko eskolatik, bai Graciak aurkezturiko proiektuagatik, euren begiz ikusiriko tailerretako eta espazioetako dinamikagatik, eta baita eskola berri horrek eskaintzen dituen gune eta baliabideengatik ere. Baina Vic ondorian dagoen Santa Eulalia de Riuprimer herrixkako El Roure Gros eskolara iritsitakoan, ohartu ziren materialak eta baliabideak baino garrantzitsuagoak direla proiektu sendo bat eta lantalde on bat edukitzea eskola eraberritzeko. Zaharra baita El Roure Gros eskola, txiki gelditu zaie gainera, eta baliabide materialak urriak dira oso El Pinetonsen aldean.

Carme Alemany ikasketa buru eta El Roure Groseko alma materraren lehen hitzak taldeari buruzkoak izan ziren: “Hemen dena talde lanean egiten dugu, kohesio handiko lantalde bat gara, eskola-proiektuari buruz asko hausnartu duen taldea. Gure hezkuntza-proiektuak haurren onura bilatzen du, ez bestelako onurarik; ez ekonomikorik, ez helduei zuzendurikorik, ez lantaldearen baldintzei zuzendurikorik ere. Hori da gure zutabe nagusia: Haurra autonomia edukitzeko gai da, hausnartzeko gai da, behatzeko eta ikasteko gai da. Jaiotzen diren unetik ikasten ari dira”.

Haurren ikasteko gaitasuna mantentzea eta bultzatzea da eskola honen egitekoa. “Irakasleena lana haurrak inkontzienteki egiten duen aurrerapauso ez jabearaztea da, aurkikuntza bat egiten duen bakoitzean hori barnera dezala, horri buruz hitz egin dezala, ez tabaidatu dezala eta komunika dezala; ikasketa bat izan dadila”. Santa Eulalia

de Riuprimerren ondo dakite zein den irakaslearen funtzioa: “Irakaslea ez da jakinduria eta ezagutzaren transmisorea, bere lana ez da liburua zabaldu eta ariketa bat egiteko agintzea, irakasle bat haurrei ikasten ikasten laguntzen dien profesionala da. Lehen lana haurrak ezagutzeko du, eta irakasleak berak ez dakizkien gauzak galdetzeko eta bilatzeko umiltasuna edukitzea, irakasleak ere ikasleekin batera ikasi egiten baitu, eta hori izango da lan honek eman-go dion poztasun handiena: haurrak ikasteko duen ilusioa ikustea eta ikastearen plazer intelektuala sentitzea”.

Haurrak motibatzeke zientzia baliatzen dute, “ezagutu, deskubritu eta ikasi elkarrekin, zientziaren bidez”, horixe da eskolan duten leloa. “Zientziak ideiak formulatzen laguntzen die, hipotesiak planteatzen eta esperimentatzen, eta ondorioak komunikatu behar dituzte ondoren, idatziz edo ahoz”. Haur batzuk Newtonen penduluaren funtzionamendua aztertzen ari ziren; txikiago bat koilara batekin ahurra eta ganbila deskubritzen ari zen; hirukote batek ur hobi bat eraiki zuen eta eskolako patioko ze lekutan kokatu aztertzen ari ziren, eta beste hirukote batek ikaragarriko astronomia lezioa eman zieten Euskal Herritik joandako irakasleei eskolako gela batean daukaten planetariumean. Motibaturik eta autonomia handiarekin ari ziren lanean txikitatik.

### Proiektuak eta adinak nahastuz

Ikasketa-prozesua proiektuen bidez garatzen dute haurrek, ikaslibururik gabe. Dokumentazio-kaxekin funtzionatzen dute, haurrak motibatzeke helburuarekin irakasleek proposatzen dituzten proiektuetarako dokumenta-

zioa eskaintzen dute kaxa horiek. “Hasi-eran orekari buruzko proiektu bat, materien nahasketari buruzko beste bat, disoluzioei buruzkoa... eskaintzen genien, eta ondoren berriak eta berriak etortzen joan dira, irakasleek inizatibaz batzuk baina beste asko irakasleek euren eskariz, gauza bat deskubritu duen haurrak beste berri bat deskubritu nahi baitu”. Alemanyk azaldu zuenez, une honetan gero eta gauza zehatzagoak eskatzen dizkiete haurrek; “izan ere, haurrek daukaten gaitasuna ikaragarria da, helduak gara gaitasun hori mugatzen diegunak”. Proiektuetan, era berean, musikako proiektuak daude haurren eskura.

Euren gaitasunen arabera, ikerketa-prozesua dokumentatzen joango dira haurrak, eta behin lana amaitu ondoren, informe idatzia egingo dute, eta argazkiekin eta marrazkiekin osatuko dute indibidualki, ondoren, irakaslearen laguntzarekin zuzentzeko. Haurrek euren gaitasunen eta premien arabera lan egiten dutenez, Alemanyk dio behar berezietako haurrek asko aurreratzen dutela ikastetxe honetan, norberaren erritmoa errespetatzen baita. Horregatik, beste hainbat zentrotara egokitu ez diren haur ugari etorri dira inguruko herrietatik Santa Eulalian eskaintzen den proiektura.

Haurren gaitasunak eta denborak errespetatzean funtsezkoa da Alemanyrentzat. “Guztiok gauzak aldi berean eta modu berean egitearen helburua irakasleek lana erraztea besterik ez da, horrek ez baitu haurren garapenari mesede egiten. Bizitzan ez dago beste esparrurik gauzak era horretan egingo ditugunik; orduan zergatik egin behar dituzte eskolan adin bereko haur guz-



tiak gauzak garai eta modu berean?”. Horregatik, adinak nahasita egiten dute lana, ikasleek euren arteko harremanetik ikas dezaten batetik, eta haur bakoitzaren erritmoa errespetatzeko, bestetik.

Haurrak adinka ez bereizteaz gain, ikasleen laneguna ere ez dute orduka zatitzen ikasgaien arabera, “jakintza guztiek interaktuatzen dute elkarrekin, astronomia lantzen dutenean hizkuntza lantzen dute aldi berean, eta bizitzan ere horrela egiten dugu”.

Gela bakoitzean 14 haur daude, ziklo bakoitzean adin desberdinetako haurrak nahastuz. Haur bakoitzak bere erreferentzia gela dauka, eta bakoitzaren gaitasunen araberrako irakurketa edo marrazketa saioaren ondotik goizetan zientzia eta ikerketa lanak egiten dituzte bakoitzaren erreferentzia gela, eta arratsaldeetan joko sinbolikoak edo irakasgai ludikoagoak lantzen dituzte guztiek elkarturik, haur bakoitzak aukeratzen duen irakasleek proposatzen dituzten ze ekintzetan parte hartu nahi duten.

### Irakasleen formazioa, ezinbesteko

13 irakasle daude El Roure Grosen eta 3 urtetik 12 urtera bitarteko 123 haur, 1.000 biztanleko herria baita San-

ta Eulalia de Riuprimer. Els Pinetonsen bezala, eskola publikoa izanik urtero berritzen den irakasle kopurua handia da, %50era artekoa. “Bertan finko gauden irakasleontzat hain aldaketa handia jasatea gogorra izaten da, baina etortzen diren irakasle berri zenbaitentzat ere zaila izaten da, proiektua eza gutu gabe etortzen direnez adin desberdineko haurrekin eta gainera testu-libururik gabe lan egitea zail egiten baitzaie sarri”. Horregatik, ikasturte hasieran formazio lan handia egiten dute irakasleekin, eta astean bi ordu hartzen dituzte formatzen jarraitzeko, batzuetan eztabaidaren eta hausnarketaren bidez formatzeko eta beste batzuetan kanpotik etorritako adituen laguntzarekin. Gurasoei zuzenduriko formazio ikastaroak ere egiten dituzte, tarteka.

Proiektu honetan azterketek ez daukate lekurik. Haur bakoitzaren jarraipena guztiz indibiduala da eta egiten ari denari buruzko hiru informe egiten dira ikasturtean zehar. Hezkuntza departamentuak, alabaina, haur bakoitzaren nota eskatzen diete irakasleei, “baina pertsona bat ezin da zenbaki batekin baloratu. Jarri jartzen dugu, baina administrazioa bakarrik iristen da zenbaki hori”.

Administrazioaren zenbait eskakizun eta jarrerekin oso kritikoa dira ikastetxe honetako irakasleak, Cavall Fortekoak eta Els Pinetonsenekoak bezala. “Aginduak onartzeko edo onartze-

ko arrazoiak lantzen ditugu, eta egoki irizten dioguna errespetatzen dugu”. Onartu ez duten aginduetako bat seigarren ordua ezartzearena izan da; Kataluniako zentro publikoek sei eskola-ordu eman beharra izan dituzte azken ikasturtean, pribatueta eta kontzertatueta hala egiten zutelako; “horrek guztiz apurtzen zuen irakasle lan giroa, eta elkarrekin eztabaidatzeko eta hitz egiteko genuen ordubetea xahutzen zuen; Haurrek bestela ere, berez, egiten dute seigarren ordua eskolan, jatorduan ia denak bertan gelditzen baitira, eta denbora parte hori ikasteko eta jolasteko baliatzen baitute, eta gurasoek ere hala ulertzen dute”.

Izan ere, haurrekin eta irakasleekin batera, familiek zeresan handia dute eskola proiektuan, eta nahi adina parte hartu dezakete, nahi izanez gero geletan sartuz eta ekintzetan parte hartuz.

31 urte daramatza Carme Alemanyk El Roure Grosen; Andreu Cardo irakaslearen eta Marisa Punti zuzendariaren laguntzarekin bereziki lantalde eta proiektu sendoa garatu dituzte, haurren autonomia eta motibazioa landuz. Baina haratago, Alemanyk argi du euren zentroan egin duten jauzia bezalakoak egin ahal izateko, sareak josi behar direla, “haurrak heziketaren erdigunean jarriko dituzten irakasleen sareak behar ditugu, irakasle horiek urratsak egiteko beharrean babesari senti dezaten”.



# Kataluniako hezkuntza

## SUNION: Nerabearen talde naturalean oinarrituriko eskola

Eskola “antiautoritario, alternatibo eta militanteki laiko” gisa sortu zen Sunion, Institutio Cultural Catalana, 1974an, Pep Costa-Pau pedagogoaren (1939-1986) ekimenez. Bigarren hezkuntzako eskola pribatua da Bartzelonako ikastetxe hau, eta gaur egun DBHko mailan kontzertatua da, eta egitura pribatuarekin zientzia eta teknologiatik batxilerra eta humanitate eta gizarte zientzietakoa eskaintzen ditu.

Ikaslearen autonomian eta ardura pertsonalean oinarritzen den sistema pedagogikoa bultzatzen du, “nerabeek elkarbizitzen ikas dezaten”, Joan Puig zuzendariak aurkeztu zuen gisan. Zutabe horren gainean eraikitzen da ikastetxea, eta bi bereizgarri nagusi ditu antolaketa ikuspegitik: ikasleak eurek aukeraturiko zazpi-zortzi laguneko talde naturaletan biltzen dira; eta bestetik, espazioen eta ordutegiaren banaketa ikasgaietako ekintzen arabera antolatzen dute asterik aste.

815 ikasle ditu Sunionek: DBHko 4 lerro ditu eta batxilergoko 6. 120 ikasleko kurso bat 16 talde naturaletan banatua dago, hau da, lau taldek klase bat osatuko dute. Ikasle bakoitzak erabakiko du ze taldetan parte hartu nahi duen, baina irakasleek osatuko dituzte klaseak taldeen arabera. 55 irakasle daude, eta bakoitzak bere klaseetarako material propioa sortzen du. “Ikasleek talde naturaletan banatzea euren garapena bultzatzeko modurik onena dela ulertzen dugu. Nerabeengan adiskidetasunak baturiko talde naturala zerbait naturala da, eta talde horretako kide sentitzeak babesa eta indarra ematen dio aurrera egiteko. Ohiko bizitzan daukaten antolamendu egitura klaseetara ekarri besterik ez dugu egin. Era honetan, ne-

rabeak eskola berak aukeratu duen taldetik bizi du, berez segurtasun gutxiko garaia baita nerabezaroa eta taldearen segurtasuna eta babesa sentitiuko ditu eskolan ere”. Era berean, irakasleei erraztu egiten die taldeko antolamenduak ikasleak hobeto ezagutzea, “euren krisiak hobeto ezagutzen ditugu, hitz egiten baitute lan eta talde dinamikaz tutorearekin, autokritika eginaz”. Azken helburua nerabeek eskola sakonki bizitzea da, bizitzea bera garai horretan bizi duten bezala.

Talde naturalek, gainera, beste bi egiteko dituzte: batetik, taldekide bakoitza irakasgai bateko monitorea da, hau da, irakasgai baten ardura eraman-go du taldearen barruan eta irakasgai horretako irakaslearekin bilerak egingo ditu kurso bereko beste talde naturaletako 15 monitoreekin batera. Bigarrenik, taldeko kide bakoitzak lan batez arduratu behar du astean eskola-ordubetez, idazkari lanetan, jangelako lanetan edo gisa honetako zortzi zerbitzutan. Horrez gain, talde bakoitzak garbiketala-lanak egin behar ditu dagokionean.

Izan ere, bidaian zehar ikusi ditugun beste ikastetxeetan bezala, Sunionen ere eskola pertsonaren bizitzako

eremutat hartzen da, ez aparteko eremu gisa. “Ikasleak euren irizpideak eraikitzen joango diren espazioa izan behar du eskolak, elkarbizitza baten barruan euren baloreak eta iritziak bilatuko dituzten eremua”. Irakasgaiez gain, beraz, baloretan hezten dira nerabeak Sunionen, “militanteki laikoak gara Sunionen, eta balio unibertsala duten baloretan hezi nahi ditugu nerabeak; baina balore hauek eurek bilatu behar dituzte, eurek erabaki behar dute nola pentsatu, nola ekin, nola jantzi...”

Talde naturalen banaketaz gain, ordutegiaren banaketa da eskola honen beste bereizgarria, eguna eta astea bera ere zatitu egiten baitute ikasleen eta irakasgaien beharren arabera, ordutegia moldatuz. “Ondorioz, asterik aste ordutegi desberdina dute ikasleek”. Internet bidez, edo korridoretan zehar dituzten pantailetan kontsultatzen dute ikasleek egunean eguneko ordutegia, edo hurrengo eguneko edo astekoa. Bitxia da hori sekula antolaketa-eredu hau ikusi ez duenarentzat. “Normalki ordutegibat idatzi eta irakasgaiak ordutegi horretara moldatu behar ditu irakasleak, baina guk optimizatu egin nahi dugu, eta edukiari eman garrantzia eta ez hainbeste edukiontzia”.







### Bidaia pedagogikoan parte hartu duten hainbat irakasleren iritziak:

#### ENARAARRIETA

Haur hezkuntzan lan egiten dugun asko ez gaude gustura gure hezkuntza ereduarekin. Ikusten dugu ze gaitasun dituen haurrak txikitatik eta uste dugu ez direla aprobeztatzen, mugatu egiten dugula. Ikastetxe askotan arazoak bukaeran konpondu nahi dira, batxiler-goan, eta nik uste dut alderantziz dela: Haur Hezkuntzan jarri behar da oinarri sendoa eta inbertsioa hor egin. Cavall Forten ikusi dugu horren eredua: haurrarekiko eta bere inizatiba eta eskubideekiko errespetua eta familiarekiko ikaragarriak dira, eta irakasleen arteko giroa ere ikaragarria; baina horri eusteko borrokan jarraitu behar dute, eta prest daude, benetan garbi baitaukate nola lan egin nahi duten. El Roure Gros eskola ere mundiala iruditu zait: ikasle bakoitzaren potentziala benetan probesten dute eskola honetan.

#### ANE IGARZABAL

Kataluniako bidaia pedagogikoak erakusten du 0 urtetatik Unibertsitate mailara arte ikasle autonomo, kritikoa, bere ikaskuntzaren auto-kontrolatzaile, arduratsu... izatera bultzatzeko Hezkuntza Proiektuak badaudela, eta eredu moduan izan ditzakegula. Els Pinetons ikastetxea zoragarria iruditu zitzaidan, zuzendariaren hitz guztiek adierazi zuten zehaztasuna, zorroztasuna, kritikotasuna eta beraien Hezkuntza Proiektuarekiko sinesmena izan ziren gehien bete nindutenak. El Roure Gros eskola hunkigarria iruditu zitzaidan: halako espazio, talde txiki baina irekian zer nolako umiltasuna, elkarrengandik ikasiz eta elkarri laguntzeko eskuzabaltasun hura... Gutxiere-

kin ere asko egin daitekeela sinesteko beste adibide bikain bat izan zen!

#### ENEKO FERNANDEZ

Katalunian ikusi dugu zein eskola mota eta zein hezkuntza mota nahiko luketen eztabaidatzen ari direla, gaur egun nagusitzen den eredu "tradizionalak" maisu-maistra aunitzen onespena ez duelako onartzen. Generalitateko Irene Rigau kontseilariaren esaldi hau azpimarratuko nuke: "Kataluniako Hezkuntza sistema da hau, ez hezkuntza sistema katalana". Estatu mailako legediak aunitz baldintzatzen du komunitate bakoitzeko curriculum eta hezkuntza sistema. Horren aurrean, Els Pinetonsen desobedientzia ez zuten genuen hausnarketa interesgarria iruditu zitzaidan, kanpo ebaluaketako probak ez egiteko pausoa ematearena, adibidez. Horrez gain, hezkuntza proiektu batean zenbait kontzeptu blindatu eta babestu behar direla ere interesgarria iruditu zitzaidan, ezin dela urtero eztabaidagai izan. Azpimarratzekoa da, baita ere, maisu-maistren gehiengoaren inplikazioa ezinbertzeko jotzen dutela hezkuntza proiektu bat aintzinerako eramateko. El Roure Groseko bisita iruditu zitzaidan bereziena, adinartekotasuna lantzeko moduagatik, gela irekien kontzeptuagatik...

#### LEIRE PEREZAZKONA

Kataluniako bidaia pedagogikoan parte hartu dugun irakaslearen gogoeta, azterketa eta ikerkuntza hautetatik guztietatik eztabaida pedagogikoa eragingo duen emaitza bat (foro bat, proiektu bat...) ateratzea gustatuko litzaidake. Katalunian ikusi dut aspaldi buruan

nuen eskola eredua: El Roure Gros. Cavall Fortetik familiekin garatzen eta mantentzen duten harremana azpimarratuko nuke bereziki. Sunion ere sorspresa handia izan zen, ez nuelako espero DBHko eskola batean halako berrikuntzarik ematea.

#### ARITZ LARRETA

Atentziona eman dit hango eskoletako ikasketaburu, koordinatzaile zein irakasleek darabilten diskurtso pedagogikoak. Besteak beste, horrelakoak entzun dizkiegu: "Ikaslea da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren benetako protagonista eta, beraz, ikaslea da ardatza, ez irakaslea". "Ikasle bakoitzaren nahi, desio, behar, interesetatik... sortutako proiektuen bidez egiten dugu lan, horrela eginda bakarrik lortuko baitugu ikasleek ikasten ikastea, pentsatzen ikastea...". Irudipena dut, gurean kontu horiek, gehienetan, kontu hutsean gelditzen direla, hau da, diskurtso hutsean. Katalunian, baina, ez dut uste hori horrela denik. Alegia, euren diskurtso pedagogikoa ez da diskurtso soila. Bisitatu ditugun eskoletan argi ikusi dugu euren diskurtso pedagogikoa praktika eta teoria uztartetik eratutako diskurtsoa dela. Ikusi ditugun ikastetxeetan agindu burokratikoekiko azaldu duten kritikotasunak ere atentziona eman dit. Eta bestetik, bidaia honek, niri eta beste askori barrenak mugitu dizkigu, zalantzak sortu dizkigu, kezka eragin dizkigu, eta ondorio argi batera iritsi gara: bestelako eskola eredu baten alde egin nahi duen jendea, egon, bagaudela Euskal Herrian.

# Xamar

## ELKARRIZKETA

Irakaslea eta idazlea

“Euskararen normalizazioaren arazoa ez da pedagogikoa soilik, soziala da, alegia, politikoa. Kalean dagoen zerbait da, eskolak ezin du konpondu”



**“Irakaskuntzan gauzak egin dira, baina marjinalitate batetik beti; alegia, kontzientzia gehien, interes gehien duen jendea marjinalitatean dago. Hezkuntza sistemak ez ditu bereganatu, hezkuntza sistema ez dagoelako euskaldunen menpe, Madrilen eta Parisen diseinatzen da, ez dezagun ahantz**

**”**

Juan Carlos Etxegoien izenez bataiatu arren, Xamar ezizenez ezagunagoa da irakasle nafar hau. Garraldako Xamarrena etxekoa izatetik datorkio izena, ohitura zaharra segituz.

20 urtean aritu da Iruñeko Jaso ikastolan, haurrekin lanean, eta irakasleekin ere bai, Irale Programaren barneko prestakuntza ikastaroetan. Gaur egun, Bilboko Zenbat Gara euskara taldeko kide da.

Gure kulturaren dibulgaziorako zenbait liburu idatziak ditu: *Orhipean, Gure Herria ezagutzen (1992), Orekan, Herri eta Hizkuntzen ekologiaz (2001) eta Euskara Jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza (2006)*.

Hizpide ditu beti euskara eta kultura, baina ez betiko gauzak esateko. Gai hori hartuta, gauzak diren moduan esaten hasteko garaia dela dio, haren ustez panorama ez baita batere ona Euskal Herrian. Argi eta garbi dio euskararen arazoa ez dela eskolaren edo hezkuntzaren arazoa, gizarte arazoa baizik, politika arazoa.



**Euskal Herria, Euskararen Herria, Euskara Jendea... esan izan duzu. Zer-nolako osasuna du, 2011. urte honetan?**

Eri den komunitate batena. Alde batetik, sintoma onak ditu eta, bestetik, osotxarrak. Onak, Jon Sarasuak maiz aipatu dituenak. Euskal komunitateak azken berrogeita hamar urte hauetan egindako lana gaitza izan da: hizkuntza batu du, irakaskuntza eta alfabetatzea antolatu eta zabaldu dira, oinarrizko ikasketak eta goi ikasketak, komunikabideak sortu dira (irratia, telebistak, *Berria* egunkaria, aldizkariak...), tradizioa egokitu du (kantak, bertsolaritza gaurkotu dira, musika alor berriak jorratu dira...).

Txarrak, hauek: elebidunek –alegia, euskaldunek –gutxiengoa izaten jarraitzen dute beren lurraldean, hizkuntza –euskara denean– aukera pertsonalen artean sarturik dago, eta erdara, berriaz, ezagutu eta erabili beharra dago; euskarak ez du zinezko ofizialtasunik bere lurraldean inon... Horrek guztiak ahuldu egiten du komunitatea, eta, jakina, motibazioa galdu da.

**Euskararen aldeko kontzientzia egon delako irauñ dugu beti. Kontzientzia eta koherentzia uztartzea falta da. Zer da hori?**

Gure hizkuntza komunitatearen iraupena harrigarria da historikoki. Pentsatzea hori kasualitatea izan dela, mendien artean ahaztutako herri bakar-tua izatearen ondorio dela, inozokeria galanta da, historian eta geografian, besteak beste, ezer ez dakiguna erakustez gain.

“Orain, mestizaje kulturala”, esaten da. Eta zer da hori? Mintza gaitezen argi.

Kepa Junkerak soilik egiten al du mesti-  
zaje kulturala? Mauriziak eta Leonek  
egiten zuten, jakin gabe, alboka jatorriz  
instrumentu arabiarra baita.

Beste hizkuntzekin eta kulturekin  
elkarrekintzan aritu behar dela esaten  
da gaur egun. Baina hori beti egin izan  
da. Ez dago kultura bakarturik mun-  
duan. Bizirik iraun duen kultura batek  
egin izan duena hauxe izan da: inguru-  
koekin harremanetan egon eta hartu,  
moldatu, utzi... denetarik. Bizirik bal-  
din badago, bederen. Guregatik ere  
esaten da puru iraun dugula. Hala balitz,  
mendiko kobazuloetan jarraituko ge-  
nuke ehizan eta margotzen, eta ez da  
hala. Hori ez da posible izan, Europako  
pasabide garrantzitsuenetakoan gau-  
delako, Pirinioak igarotzeko pasabide  
naturalean. Bestea Katalunian dago.  
Non daude autopistak? Huescatik ez di-  
ra pasatzen, Euskal Herritik eta Katalu-  
niatik baizik.

Beraz, ideia hori, herri isolatuarena,  
konkistatu gabeak garela dioen ideia  
hori, faltsua da. Kanpokoek ezarri digu-  
ten ideia da, sinetsi egin dugu, eta, bide-  
nabar, konplexua sortzen digu: "Bai,  
oso itxiak gara, ireki egin behar du-  
gu...". Ireki? Gehiago? Gu bezalako he-  
rri demokratikorik ez dago, zeren gure  
herri definizioa hizkuntzan oinarritzen  
da: ikasi hizkuntza eta gutarra izango  
zara. Hori baino zabalagorik? Ez da larri  
kolorea, ez erlijioa, ez sinesmenik...,  
hizkuntza jakitea baizik: euskaraz bal-  
din badakizu, euskalduna zara, gutarte-  
koa.

Kultura gutxik definitzen du bere  
burua mintzoa oinarri hartuta. Herria  
euskararen herri bada eta, logikoki, he-  
rriidea euskara duena bada, garbi da-  
go zer-nolako hizkuntza kontzientzia  
egon den hemen, zernahi zela egoera  
historiko eta politikoa.

Gaur egun, aldiz, lehen ez bezala,  
elebitasuna orokorra da, eta espainola  
edo frantsesa dira, funtsean, ofizialak  
diren bakarrak, eta horrek bere ondo-  
rioak ditu. Horrela, dikotomia batean  
bizi gara, izan nahi dugunaren (euskara  
hiztun arruntak lurralde normal batean)  
eta garenaren artean (elebidun ez sobe-



ra orekatuak, erdaren itsasoaren barne-  
an). Adibide gisa, euskal kulturaren al-  
de (hizkuntza komunitatearen hil ala bi-  
ziko afera) maiz egiten dira manifesta-  
zio arrakastatsuak. Baina zenbaterik  
kontsumitzen du kultura hori? Kohe-  
rentzia gehiago behar dugu egunero-  
koan.

### **Eta nola lor dezakegu koherentzia hori?**

Baneki eskizofrenia horren kontra-  
ko errezeta, kontsulta irekiko nuke.  
Garbi dagoena da gogoeta egin behar  
dela, esaten eta egiten dugunaren arte-  
an. Berriz diot, oso nabarmena da kultur  
kontsumoan egiten dena..., eta hor sar-  
tzen ditut nagusiki irakurtzen ditugun  
egunkariak, adibidez. Zenbat euskal-  
dun garen kontuan hartuta, egunero  
euskaraz irakurriko bagenu, dagoene-  
ko bat beharrean, bi edo hiru egunkari  
genituzke euskaraz. Baina, eskualderik  
euskaldunenetan ere, prentsa erdaldu-  
na da nagusi.

### **Zer egin behar da hori aldatzeko?**

Kultur mugimendu indartsu eta ga-  
rarrantzitsua behar dugulakoan nago;  
adibide ona iruditzen zait 60ko hamar-  
kadako *Ez dok bamairu* taldea. Talde  
horrek izan zuen eragina kulturatik ha-  
ratago joan zen, naturalki; hizkuntzaren  
normaltasuna, alegia, herriarena, bul-

tzatu zuen, eta horrek jende asko eraka-  
rri zuen, jende ugari euskaldundu zen  
eta integratu zen euskalgintzan, beste-  
ak beste, garapen pertsonala ere bada-  
karrelako; eta aberasgarria da hori. Gaz-  
te batek sekulako aukerak ditu euskal-  
gintzan (idazten, musikan, zientzietan,  
teknologian...) zerbait interesgarria  
egiteko, asko dagoelako egin gabe; al-  
diz, ingelesez saiatzen bada, askoz zai-  
lagoa du, milioika jende ari baita kultura  
horretan.

### **Zer aplikazio izan dezake kulturaren ezagutzak hizkuntzarekiko motibazioan, erabileran...?**

Hizkuntzak ez dira gramatika soi-  
lak, kultura baten parte dira, eta kasik  
ezin dira bereizi. Nik Ameriketako  
*country* musikan interesa badut, ezin-  
bestean, ingelesa ezagutu beharko dut.  
Garai batean, ingelesa ikasten zuen jen-  
dearen motibazioa Beatles edo Rolling  
Stones taldeek esaten zutena ezagutu  
nahian oinarritzen zen, edo, gutarte-  
an, euskara ikasteko, Laboak, Letek edo  
bertsolariek esaten zutenean. Guztiz  
uztaturik dauden alorrek dira, kultura  
batek berez du hizkuntzarekiko erakar-  
pena, eta alderantziz. Nik, haurra nin-  
tzelarik, eskolan nuen ikasgaia ez zen  
frantsesa, "Hizkuntza eta kultura fran-  
tsesa" baizik.

**30 urte daramatzagu irakaskuntzan euskararen normalizazioa lantzen, ezagutza, erabilera eta motibazioa lantzen. Nahikoa egin al da?**

Irakasleek ahal dutena egin eta egi-ten dute. Denetarik dago, baina intere-  
sa, jakintza eta gogoia duenak egiten du  
ahal duena.

Gauzak egin dira, baina marjinalita-  
te batetik beti; alegia, kontzientzia  
gehien, interes gehien duen jendea  
marjinalitatean dago. Hezkuntza siste-  
mak ez ditu bereganatu, hezkuntza sis-  
tema ez dagoelako euskaldunen men-  
pe, Madrilan eta Parisen diseinatzen da,  
ez dezagun ahantz.

Irakasleen prestakuntzari dagokio-  
nez, gaur egun badira leku berezi bat-  
tzuk, non zinez aritzen diren, jakintza  
eta gogotik abiatu, Eskoriatzan, adi-  
bidez; baina hangoa oso egoera berezia  
da. Beste irakasle eskola batzuetan ere  
zerbait egiten da, baina beti dago irakas-  
learen jakintzaren eta borondatearen  
arabera, ez da sistematikoa.

**Irakasle eskoletan euskarari eta euskal kulturari buruzko prestakuntza irakatsi beharko litzateke, zure ustez. Nolako izan beharko luke prestakuntza horrek?**

Funtsezkoa iruditzen zait gure he-  
rriaren eta kultura tradizionalaren eza-  
gutza. Eta horrek ez du esan nahi, jende-  
ak pentsatzen duen moduan, txapela  
eta gona gorria jantzi behar ditugunik,  
horiek topikoak dira. Ez da hori. Baina,  
oro har, gure kultura ez dugu ezagu-  
tzen. Aski frogaturik daukat hori urteak  
eman baititut IRALEN irakasleen presta-  
kuntza programetan. Behin, Iruñetik  
Azpeitira iritsi, eta 40 urte inguruko ira-  
kasle euskaldun peto-petoeekin, base-  
rietako seme-alabekin, topo egin  
nuen. Zera pentsatu nuen: “Zer kontatu  
behar diet euskal kultura tradizionalari  
buruz hauei? Harrikatuko naute”. Eta  
ezustekorik handiena jendeak horretaz  
ez zekiela ia ezer konturatzea izan zen.  
“Mesedez, gaur kontatu dizuedana gal-  
detu etxean”, esaten nien. Eta haien



ezustekoa,  
aita eta amak bazekitela konturatzean.  
Euskarak oso ongi iraun duen eskualde  
batean, ez da izan gure kulturaren trans-  
misiorik; gure kultura baserritarkerie-  
kin lotzen dugu, konplexuen ondorio  
da... Konplexua normala da, koloniza-  
zioaren ondorio da. Beti gaude moder-  
nizazioa, globalizazioa, mestizaje kul-  
turala... Mestizaje kulturala? Gu gara  
Europako espezialistak. European ari-  
tuenak gara. Baina ulertu behar dugu  
ongi zer den kultura bizia, nola garatzen  
den kultura tradizional bat eta zer den  
hori.

**Nola berreskura dezakegu jakintza hori?**

Galdera da zenbat jende dagoen  
prestaturia hori erakusteko. Horren on-  
dorio da, pixka bat, gure liburuen arra-  
kasta ttipia. Aipatu kezka bultzatu nin-  
duen alor horretan zerbaite erakargarria  
egitera, pentsatuz, beharra bazego-  
la... eta aski arrakasta izan dute. Zerga-  
tik? Gure kultura, gure tradizioak, gure  
historia ikuspegi aske batetik, konple-  
xurik gabeko ikuspegi batetik, lantzen  
dutelako.

Irakasleek sentitu egin behar dute  
transmitituko badute, zernahi gai, ber-  
din geografia, nola matematika; bide-  
nabar esanik, teknologia berriek nekez  
transmitituko dute sentimendurik, in-  
formazioa bai, baina ez sentimendurik.  
Nola landu? Hasteko, ezagutza behar  
du soziolinguistikaren oinarrian, esko-  
lak, gurea bezalako egoera batean, egi-  
ten duen lana kokatzeko; eta gero, gure  
kultura tradizionala, nondik gatozen ja-  
kitek.

Irakasleak motibatuz, prestatuz eta  
trebatuz landu dezakegu motibazioa

**“ Hizkuntza komunitatea sakabanatuta dago, erdararen itsasoan barreiatuta, eta trinkotu egin behar dena da, lotu, euskaldun kontziente osoak hor egon, bistan, eredutzat. Horrela, herria babestuago (eta motibatuago) sentituko litzateke. Gaur egun, aldiz, eredu diren horiek (telebistan etengabe ateratzen direnak: politikariak, kirolariak, kulturgileak...) espainolez aritzen dira. Eskizofrenia horrek herritarrak desmotibatzen ditu ”**

eskoletan. Baina irakasleak gizarte honen parte dira, haren ondorio eta ispilu. Bestalde, irakasleriak gaur egun bizi dituen presioa eta lana oso handiak dira, eta prestakuntzarako dauden bideak aski eskasak dira, oro har: borondatezkoak, ordutegietatik kanpokoak maiz, nekatuak...

Eta erabilera gizarte arazoa da, eskolatik kanpo gauzatzen dena, eskolan irakats daiteke zernahi hizkuntza: latina, frantsesa, ingelesa, euskara... Baina eraikinetik kanpo erabilera eremurik ez badago, alferrikakoa da eskolan egindakoa. Harrigarria egiten da behin eta berriz ohartaraztea hizkuntzenak direla ikasketarik hauskorrenak, erabili ezean galdu egiten baitira, baita ama hizkuntza ere. Eta haxe galdetu behar dugu: ba ote dago gizartean eragiteko prest dagoen inor, funtsezko alor honetan? Horrek politika du izena, ez gaitezen engaina. Kasu, kontrakoa egitea ere politika da. Eskolan egiten dena gobernuen menpe da, gobernuak agintzen dute, ez irakasleek.

Gaur egun, mezu nagusia, tamalez aski barneraturik sumatzen dudana, haxe da: egin ezazu euskararen alde, baina hori soilik, gramatikaren alde, kontuan hartu gabe herria, kultura, historia... ez sartu "politikan". Euskal Herria "gehiegi" aipatzen omen da, Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren ustez. Aurreko Jaurlaritzek 30 urte pasa zituzten euskal curriculum diseinatzen, azkenean lortu gabe. Hori Euskal Herriko lurralde ofizial bakarrean, gainerakoe-tan...

### **Hizkuntzaren arazoa ez dela eskolaren arazoa diozu, gizartearena baizik.**

Hala da; euskararen normalizazioaren arazoa ez da pedagogikoa soilik, soziala da, alegia, politikoa. Irakaskuntzan gaudenok beti pentsatzen dugu arazo pedagogikoa dela, nola hobetu irakasteko modua. Garai batean euskararen irakaskuntzarako metodorik hoberena aurkitzea zen gakoa. Kasik urtero ateratzen zen metodo berri bat, pentsatuz "oraingoa, honek bai, honek



lortuko du". Hizkuntzen erabilera gizarte arazoa da. Hori kalean dagoen zerbait da. Eskolak ezin du konpondu. Guk txikitik latina ikasten genuen denok; horrek ez zuen berpiztu hizkuntza kalean.

Bistan da eskola funtsezko elementua dela normalizazio prozesuan. Baina egiten dugun bakarra hori baldin bada, gureak egin du.

Nik uste, gainera, irakaskuntzan gaudenok eta azken 30 urte hauetan curriculum bat dugunon artean, jende asko ohartu dela horretaz; genituen itxaropenak ez dira bete, eta has gaitezen hori onartzen. Nora goaz herri gisa? Horren menpe baita irakaskuntza.

### **Txepetxek zioen hiru arlo landu behar direla: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Nola landu horiek gizartean?**

Printzipioz, hizkuntza normalizatu dentokietan, hizkuntza da nagusia. Alegia, politika zernahi gaitan egiten duzu-

la, kontua zera da: "Egiten ari naizen honen zer ondorio ditu, hizkuntza komunitatea indartzeko?". Hizkuntza komunitatea sakabanatuta dago, erdararen itsasoan barreiatuta, eta trinkotu egin behar da, lotu, euskaldun kontziente osoak hor egon, bistan, eredutzat. Gaur egun, aldiz, eredu diren horiek (telebistan etengabe ateratzen direnak: politikoak, kirolariak, kulturgileak...) espainolez aritzen dira, bai eta euskaraz egin ahal den leku bakarrean, aldi bereko itzultzaileak daudelako: legebiltzarrean. Edo, udaletako azken atezainari euskararen gutxieneko ezagutza eskatzen zaio, kasurik hoberenean, baina alkateari ez, eta agian abertzalea da, Bilbon kasu. Eskizofrenia horrek herritarrek desmotibatzen ditu.

### **Gizartean motibazioa lantzeko eredu egokiak bistaratu beharko lirateke, orduan.**

Bai, euskaraz aritzen diren ereduak

E

“**Euskararen erabilera gizarte arazoa da. Eskolan irakats daiteke zernahi hizkuntza: latina, frantsesa, ingelesa, euskara... Baina eraikinetik kanpo erabilera eremurik ez badago, alferrikakoa da eskolan egindakoa. Eta hauxe galdetu behar dugu: ba ote dago gizartean eragiteko prest dagoen inor, funtsezko arlo horretan? Horrek politika du izena, ez gaitzen engaina. Eskolan egiten dena gobernuen menpe da, gobernuak agintzen dute, ez irakasleek**”

bistaratu, Katalunian egiten den moduan.

Gaur egun motibazioa ez da lan-tzen, “Valor del soldado”, “se supone” esaten zuten Espainiako armadan. Hemen ere, hizkuntzarekiko motibazioa, berdin, jakintzat ematen da. Baina motibazioa landu egin behar da, etengabe, eta bereziki etengabe elikatzen den erdaren aldeko kanpaina izugarria dugunean. Bat-batean Jaurilaritzako norbaitek esaten du Euskal Herria hitza gehiegi erabiltzen dela; gero, lehendakariak esaten du “euskara zaila dela” edo biolentziarekin lotzen du; eta euskararen kontseiluko beste horrek “nekazal mintzoa” dela dio eta hobe dela espainolez idaztea... Horrek eragina du gugan, subliminalki zein zuzenean jendearengana iristen da, eta gure erantzunak eskasak eta konplexuz beterikoak dira.

Nola egiten da praktikan bizitzeko behar ez den hizkuntza baten aldeko diskurtsoa? Esplikatu z nor-nori-nork zein interesgarria den? Hemen, bada herri bat, kultura bat, batasun bat Eskiulatik Bilbora, eta hori landuz motibatu behar da.

**Hori, motibazioari dagokionez. Ezagutzaren kasuan, nola lortu euskara eta euskal kulturaren ezagutza hedatzea?**

Material propioa sortu behar da Herri mailakoa, orokorra, baina baita ere lokala, toki bakoitzari egokitua: herriko toponimia, herriko kondairak... Hori bertan behar da egin eskolaren, herriko taldeen eta udalaren artean. “Begira, Laminurri horretan lamia bat agertzen zen...”, kontatu hurrei horrelakoak. Eta hori soilik euskaratik eta euskaraz egin daiteke zentzu osoa izateko.

Hori litzateke gizartean jakintza hedatzeko modu bat. Bistan da. Horrela, kultura zabaltzen da. Eta horrek motibatu egiten du. Iruñean auzo guztien izenak euskaraz daude, eta hurrei non bizi ziren galdetzen nien: Arrosadian, Iturraman, Aranzadin, Azpilagañan, Ermitagañan... Ikasliburua utzi, eta izen horien zerrenda egiten genuen, mapa ere bai... Horrela, geure liburua osatu



genuen. “Nola esaten dira hauek erdaraz? Erdaldunek nola deitzen diete?”, galdetzen nien. “Berdin”. Zer esan nahi du Iturramak? Iturribat zegoela, eta horren atzean istorio bat dago. Etxabakoitz... Auzoen izenak guk ulertzen ditugu eta erdaldunek ez. “Erakutsi gurasoei”, esaten nien. Eta haurrak izugarritzko motibazioarekin etortzen ziren. Haurrak gurasoen irakasle bihurtzeko euskara kontutuan. Hori ikaragarria da motibazioaren aldetik.

**Eta hirugarren gako: erabilera. Nola hedatu hori gizartean?**

Berdin, Txepetxek erakutsi zigun moduan: hasteko hizkuntzak zinez ofiziala izan behar du, nonbait bederen, erdara bezain ofiziala; eta gizarte arazoa dela onartu, ez dela arazo pertsonala, bihurtu nahi duten moduan. Eta hori gizartean beste gai batzuekin ere ari da gertatzen. Horregatik dira *best seller*ak autolaguntza liburuak. “Ez bazara zoriontsua, zeure errua da.” Lan baldintzak, euskaraz egitekoak... gizarteari dagozkion alor guztiak gizarte arazoak dira, hain zuzen. Guk bakarrik ezin ditugu konpondu maila pertsonalean, antolaketa kolektiboa behar da.

**Zergatik bihurtu da arlo pertsonaleko arazoa?**

Ez gaudelako babestuta. Beraz, arazoa politikoa da. Eskolak ahal duena egiten du, baina, gero, gizartea ikastetxetik kanpo dago. Adibide gisa, orain dela urte gutxi arte, ETB hiru-lau kate- ren arteko bat zen. Gaur egun, 60 kate daude, 4 haurrentzat, 24 orduz, erdaraz. Idurika ezazu egoera berri honek duen eragina haurren hizkuntza joeran. Hori



da hizkuntza politika. Hala ere, oraindik Jaurlaritzako bat ausartzen da galdetzerara ea euskarazko komunikabideak ezote diren gehiegi. Laburbilduz: gutxi tuak, zapalduak eta gutxietsiak.

Herri honetan zerbait egin nahi baldin bada, politika egin behar da, hizkuntza politikan oinarrituta. Bada, ikusi behar da egiten dugun orok nola eragiten duen euskal hizkuntza komunitatean. Ongi heldu da? Egin dezagun. Ez da ongi heldu? Ez dezagun egin. Hori da hizkuntza politika.

### **Garbi ikusten duzu erdaren aldeko hizkuntza politika dagoela, ezta?**

Larramendik duela 300 urte salatzen zuen kontrako diskurtsoak indarrean segitzen du. Gure mezuak ez dira pasatzen, marjinalak dira... Behar dugun diskurtso sendo horrek ez du tokirik hedabideetan. Euskararen Herria marjinalia bat da País Vasco–Pays Basque barnean, indarrean dagoen hizkuntza politika bakarra erdaren aldekoa baita.

Erdarak, espainola eta frantsesa, ezagutu eta erabili egin behar dira Euskal Herrian. Hori ez da nire iritzia, legeetan idatzirik dago. Ondorioz, erdaraz egiterakoan dena da erraztasun; kultur arloan oihartzuna eta zabalpena doan egiten da. La Oreja de Van Gogh, adibidez, guztiek ezagutzen dute hemen, baina bada Benito Lertxundi ezagutzen ez duenik. Nagusiek euskara ikasi nahi badute, Jaurlaritzaren diru-laguntzaren bat lor dezakete, kasurik hoberenean; etorkinentzat erdara ezagutzeko eskolak doan dira. Lanpostuetarako espainola eskatzea normala eta beharrezkoa da; euskara, aldiz, jendea diskriminatzea... Adibide batekin hobeki ulertzen da, hain zaila bada hau konprenitzea; Era natural batez euskalduna den Baztango haur batek espainola ikasi behar du euskara/espainola elebitasuna, aberasgarria izateaz gain, izugarritzko zortea delako, bi kultura ezagutzea. Era natural batez erdalduna den Tuterako haur batek ez du euskara ikasi behar, espainola/euskara elebitasuna “nazionalismoaren inposizio talibana” izanen litzakeelako. Oraindik ezal da erdaren al-



deko politika ikusten?

### **Zergatik hasten gara gaztelaniaz hitz egiten euskaldun talde batera erdaldun bat etorri orduko?**

Ez dagoelako euskararen aldeko zinezko politikarik. Ez dagoenez, salduta eta galduta sentitzen gara, eta baita deseroso edo errespetu gabeko ere. Balez ginez politika bat eta benetan ikusiko balitz, ez litzateke hori gertatuko. Adibidez, politikari euskaldun batek lehendakariarekin elkarrizketa bat eduki behar badu, nola izango da elkarrizketa, zein hizkuntzatan? Ofiziala baina pribatua eta aurrez aurre balitz ere, itzultzailearekin egin beharko luke lehendakariak, euskaldunak euskaraz egin behar (edo nahi) diolako. Hori, jakina, ez da gertatzen. Berriz errepikatzen ari gara: eredu edo, bederen, gizartean eragina dutenak euskaldun koherenteak balira erabileran, herria babestuago (eta motibatua) sentituko litzateke. Gizartean, ereduak garrantzitsuak dira.

**Kulturak motibatzen ote du euskara ikastera?**

**Duela bi urte Argentinan izan nintzen, eta euskara irakasten zuten emakume batzuek zera esan zidaten: “Guk taldean erabaki genuen euskara ikastea *Orhipean* espainolez irakurri ondoren”. Nola? “Bai, liburua irakurri eta “honek merezi du” erabaki genuen”. Ikasi egin dute, eta euskara irakasten ari dira egun. Lan horri egiten ahal zaion laudoriorik handiena da, eta, bide-nabar, kultura jakiteak hizkuntza ikastera motibatu egiten duela erakusten du. Euskal Herrian ez zait gertatu horrelakorik.**

## Ikastetxetik herriaren ezagutza transmititzen

**Errenteriako toponimia jaso zuen lehenik Udalak, baina lan hura guztia liburukote batean argitaratu baino nahiago izan zuen lan hori gizarteratzeko beste bide bat bilatu, eta bide horren bila zebilela iritsi zen Errenteriako Udala Hik Hasira. Toponimia bilduma zena herriko kultur ondarea ezagutarazteko hezkuntza proiektu zabal bihurtu da era horretan: Herria ezagutzen proiektua.**

Toponimia kultur ondarearen zati denez, hezkuntza egitasmoa toponimiara mugatu beharrean, ondarea bere osotasunean lantzea proposatu zuen Hik Hasik, sei unitate didaktikoren bidez. Eta bi urteren ondoren, herrian, herriari eta herritarrei buruz jasotako edukiak gizarteratzeko proiektua argitaratuta eta ikasle eta hezitzaileen eskura dago dagoeneko. Errenteriako kultur ondarea eta toponimia lantzeko, Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzera-ko unitate bat proposatzen da, eta hezitzailearentzako gida ere osatu da, unitate bakoitzeko informazioarekin, jardueren azalpenekin, jarduera osagarriekin eta dokumentazioarekin. Ikerketa, bilketa eta unitateak Hik Hasiko Arantxa Urbe lankideak egin ditu.

Kultur ondarearen transmisioan

gertatu den etenak azaleratu du gisa horretako hezkuntza lan bat egiteko premia. Unitate didaktiko horien bidez, herriari loturiko hainbat helburu lortu nahi dira, hala nola herritarren izaeraren kontzientzia indartzea; euskal kultura eta euskararen normalizazioa bultzatzea; gazteen artean herriko kontuak eta informazioak zabaltzea; ikastetxeekin trebakuntza eta zabalkundea lantzea; integrazioa erraztea eta, batez ere, herritarrengan herriarekiko, historiarekiko eta bizitzarekiko jakin-mina eta atxikimendua sortzea. Eta hori guztia herria ezagutaraziz egin nahi da.

Herritarren eta herriko elkarten arteko ezagutza eta kohesioa bultzatzearekin batera, helburu pedagogiko argia du lan honek, ikastetxeetan lantzen diren oinarrizko gaitasunak gertuko baliabideekin lantzen lagundu nahi baitie ikastetxeei. Ikasleak eskura dituen baliabideen bidez, egunero bizi dituen espazioen eta gertaeren bidez ikas dezan. Euskal Curriculumak garatzeko aukera ematen dute unitateek, hau da, Euskal Curriculumean landu nahi diren edukiak, dela euskal nortasuna, izaera, kultura, sinesmenak, balioak... gertuenekotik abiatuta, hots, herritik, ezagutarazten zaizkio ikasleari.

### Historia ardatz

Historia da sei unitateotako proiektuaren enborra, eta unitate bakoitzetik adarrak ateratzen dira, unitate bakoitzean jorrotzen diren gaiak gaur egunera gerturatzen dituzten adarrak, hain zuzen ere, ikasleek konpara ditzaten antzinako garaiko eta gaur egungo e-

goerak. Gaia hainbat jarduera eta ariketaren bidez osatzen da, liburuki bakoitzean herriko pertsonaia bat ezagutarazten da, eta ibilbide bat ere proposatzen da aldiko.

### Eragileen parte hartzearekin eginiko lana

Errenteriako Udaleko Euskara Sailarekin koordinaturik, herriko zazpi ikastetxeen eta Udalaren parte hartzearekin osatu du Hik Hasik proiektu hau. Hasieratik ikastetxeek eta Udalak sei unitateen gidoiaren proposamena eduki dute, eta ikastetxe bakoitzak bere proposamenak eta alderaketak egin ondoren hasi ziren unitate bakoitza diseinatzeko. Liburuki bakoitzaren diseinua ere guztien artean adostu dute, Hik Hasik proposaturiko zirriborro-gidoiaren gainean bakoitzak bere ekarpenak eginenez. Egitasmoaren hasieratik hezkuntza eragile guztien parte hartzea bilatu baita.

Unitate bakoitzeko edukiak prestatzeko, hustuketa lan handia egin du Arantxa Urbek. Hasieran, aurretik bilduta zegoen informazioaren gainean lan egitea adostu zuten, liburutegira eta artxibategira joz. Baina, lanean hasi ondoren, zenbait informazio bildu eta osatu beharrean izan da, kasu askotan herriko elkarteetatik eta eragileengandik informazioa zuzenean jasoz. Informazioaren hustuketaren emaitza osoa hezitzaileen gidan ikus liteke. Hainbat euskarri eta lekutan sakabanatuta zegoena, nagusiki gaztelaniaz idatzitako dokumentazioa zen, euskaraz idatzita jarri da gidan. Unitate didaktiko bako-



tzak bere gida du eta unitaterik gabe ere erabiltzeko moduan jarri dira.

Gida horrek, era berean, malgutasuna ematen die unitateei. 7 ikastetxe izanik Erreterian, bakoitza bere proiektu, dinamika eta filosofiarekin, guztiarekin erabat asmatuko duen materiala sortzea zaila denez, paperean argitaraturiko unitateetatik harago, jardue- ra eta pertsonaia gehiago eskaintzen dizkie gidak hezitzaileei, bakoitzak nondik nora jo erabakitzeko aukera izan dezan.

Bereziki hezitzaileengan pentsaturik egin da gida, kontuan izanik unitateak landuko dituzten hezitzaile asko ez direla herrikoak edo ez dutela herria aski ezagutuko. Baina, era berean, gida guraso edo herritar ororentzako eskura dago Interneten.

Malgutasunaz gain, hezkuntza proposamen horren ezaugarriak dira bizitasuna eta elkarrekintza ere. Ikasleentzat bizia eta dinamikoa izan dadin, ahozkotutasunak garrantzi berezia dauka proiektuan, ikasleak galderak egitera bultzatzen baititu, etxean, auzoan nahiz elkarteetan galdetzeraz. Ikasleek jasotako informazio hori berriro herri-ri itzuliz elkarrekintza bilatzen dute unitateek, hau da, joan-etorriko lana da. Herri-rik jaso dutena erakusketen bidez edo bestelako ekintzen bidez gizareratzeara proposatzen du Urbek.

### Lehen proba, gaindituta

Dagoeneko iritsi dira ikasle- en eskuetara lehen unitateak, eta lehen harrera oso positiboa izan da, bai ikasle- en aldetik eta baita irakasle- en aldetik ere. Herrian gutxien integratutako auzo- etan interes ikaragarria erakutsi dute, auzo berriak izanik, ez baitira gertakari historikoen epizentro izan.

Herriko kultur ondarea zabaltzeko proiektu hau ez da unitate didaktikoekin eta hezitzaileen gidarekin amaitzen, hori atal bat besterik ez da. Aurrera begira, proiektuaren barruan sartzen dira DBHko ikasleentzat komikiak egitea, herrian panelak ezartzea edota haurrentzako ipuinak sortzea ere. Toponimia, herriko pertsonaiak eta gertaera historikoak loturik ipuinak sortzea proposatu zaie herriko egileei, garai bateko herriko ipuinak galdu egin baitziren, Erreterian etxeen izendegiak galdu ziren bezalaxe.

Unitateak, gidak eta informazio osagarria helbide honetan daude: [www.ondarea-erreteria.net](http://www.ondarea-erreteria.net)



# Arantxa Urbe,

## unitateen koordinatzailea eta Hik Hasiko lankidea



### Herriko ondarea transmititzeko tresna izango dira unitate hauek. Horretarako behar berezia ikusten zenuten Erreterian?

Transmisioaren katea nahiko etena dago, gaur egun, Oreretan. Transmisioaren etena, lehenik, transmisioaren leku naturalean gertatu da, etxean. Baina eskolan ere etendura nabarmena da; batetik, gero eta irakasle gehiago direlako kanpokoak, eta, bestetik, mugikortasun handia dagoelako irakasleen artean: egun batean irakasle bat dago eta, handik gutxira, beste bat. Herrian ere gero eta herritar gehiago gara lo-hiri moduan hartzen dugunak herri hori, eta horrek herriaren ezaugarrien galera dakar, eta herritarren atxikimendua ere gero eta lausoagoa da. Gero eta gutxiago dakigu herriaz, nahiz eta herrian bizi.

### Norberaren herria ezagutzeak, zer balio dauka?

Ezagutzen ez duzun gauza bat ezin duzu maitatu, ez baduzu maitatzen, ezin zara inplikatu; eta ez badago inplikaziorik, nola egingo du aurrera herriak? Gure nortasunaren, ezaugarrien eta kulturaren biziraupenaz ari gara. Hori guztia ikusita, pentsatu genuen ondareari buruzko horrelako lan bat egin

beharzela. Herria ezagutzetik hasten da herri baten eraikuntza.

### Baina herria gutxi ezagutzea eta transmisioa etetea ez dira soilik Erretereriako arazo, ezta?

Ez, ez. Beste herri batzuetan ezagutu dutenean proiektu hau, ikusi dugu beste herri askotan ere badagoela kezka bera. Ez da Oreretaren kasu esklusibo bat. Ondarearen transmisioaren etena nahiko orokorra da.

### Unitateak egitean, ahalegin berezia egin duzue historiografia ofiziala zabaltzeko, ezta?


Bai, bereziki unitate bakoitzean lantzen den pertsonaia aurkezteko garaian eta historia kontatzeko moduan. Historiografia ofiziala artxibategietan dago, beste batzuek guri buruz kontatu dutena. Gure herriko pertsonaia historiko gehienak edo apaizak edo nabigatzaileak izan dira, eta ikuspegi zabalagoa emateko ahalegin handia egin dugu. Emakume horien biografiak guk idatzi

behar izan ditugu. Mari Zozaiakoa da pertsonaia horietako bat, Logroñoeko sorginkeria prozesuan epaitu zutena. Baina, garai berean oso nabigatzaile famatuak bizi izan ziren hemen, Espainiako armadan borrokatu zirenak, eta hezitzaileak horietako bat landu nahi izanez gero, aukera hori ere ematen dugu gidaren bidez.

### Zuek ez duzue eredu zehatzik izan lan hau egiteko, baina dagoeneko beste herri batzuetan ari dira antzeko proiektuak prestatzen, ezta?

Bai, Arrasaten ari dira dagoeneko, eta Ordizian ere bada antzeko asmo bat. Lan hau herritik egin behar dela pentsatzen dugu, herriko jendeak egin behar duela. Guk tresna eskaini nahi dugu Hik Hasitik, guk egin dugun lana beste batzuen eskura jarri, diseinua eta antolaketa eta eredia eginak daude, baina herri bakoitzak bete behar du edukia. Zuhaitz txiki bat jarri dugu, eta ea adar asko ateratzen zaizkion.





### 1. NOR GINEN

**GARAI HISTORIKOA:** Oarso bailara, Aiako Harria mendia, hain zuzen, itsas azpitik azaleratu zen Euskal Herriko lehen lurra izan zen. Beraz, inguru hori guztia baliagarria da Historiaurreko eta Historiako aroak aztertzeko.

Horrek emango dio hasiera unitateari. Ondoren, Aizpitarteko kobazuloak landuko dira, han bizi izan baitziren herriko lehen biztanleak.

Neolitoa, Burdin Aroa, eta inguru haietatik igaro ziren hainbat herrik irakatsitakoak azalduko dira. Haien ondoren, erromatarrek bailara horretan eraikitakoak aztertuko dira.

**GAIA:** toponimiaren gaia lantzea proposatzen da.

**ELKARTEA:** Paleolitoa lantzen duen herriko elkarteak ezagutuko dute.

**IBILBIDEA:** hiru zatitan aurkeztu da: alde batetik, herrigunetik hurbilen dauden monumentu megalitikoak ezagutzeko ibilbidea; beste alde batetik, Aizpitarteko kobazuloak eta han inguruko monumentu megalitikoak ezagutzeko ibilbidea; eta, azkenik, Arditurriko meategiak eta Luberrri ikasgela geologikoa ezagutzeko ibilbidea.

**PERTSONAIA:** Jaungoiko-Txiki.

### 2. ITSAS BAZTERREAN

**GARAI HISTORIKOA:** Erdi Aroa. Garai hartan, herria itsas portu garrantzitsua izan zen, eta haren bizitza eta jar-

## 6 unitateen aurkezpena:



dunbide ekonomikoa itsasoarekin oso lotuta zeuden.

Une hartan, Nafarroako Erresumako lurrak izan zirenak Gaztelako erregeak eskuratu zituen. Gaztelakoak Hiri Gutuna eman zion herriari, izena aldatu zion eta hainbat betebeharrak ezarri zituen, besteak beste, herria harresitzea.

**GAIA:** herri harresitua ezagutu, eta garaiko jendeak nola bizi ziren landuko dute unitate honetan. Herrian ugariak ziren ontziola eta burdinolei tiraka, lehengo eta oraingo lanbideak landuko dira, era berean.

**ELKARTEA:** herriko euskarazko hedabideak ezagutuko dituzte.

**IBILBIDEA:** herriko alde zaharretan barrena izango da. Zutik dirauten Erdi Aroko eraikuntzak bertatik bertara ezagutuko dituzte.

**PERTSONAIA:** Mari Zozaiakoa.

### 3. HANDITUZ

**GARAI HISTORIKOA:** herria harresitzeko argudioetako bat jasaten zituen eraso ugarietatik babestea izan zen. Haietako batek, 1638an jazotakoak, hain zuzen, herria ia birrinduta utzi zuen. Egoera tamalgarri haren aurrean, herritarrek herria leku seguruago batean eraikitzea pentsatu zuten. Eraikitzen

ere hasi ziren.

Egoera ekonomikoa onak inguruko jendea erakarri zuen, eta laster jendea



kabitu ezinik geratu zen harresien barruan. Lehen errebalak eraikitzen hasi ziren. Hala, bat bestearen atzetik, gaur ezagutzen dugun herria osatu arte. Auzoen jatorria ezagutzeko parada eman digu horrek.

Jende pilaketak arazo asko eta larriak ekarri zituen: zaborrarena, besteak beste.

**GAIA:** herriko jai nagusiak eta hainbat ohitura landuko dituzte.

**ELKARTEAK:** kultur adierazpenean jardunean ari diren herriko elkarteak.

**IBILBIDEA:** ibilbidea auzoetan barrena egingo da, auzo bakoitzeko elementu esanguratsuena ezagutzeko.

**PERTSONAIA:** Juan Ignacio Gamongoa.

### 4. GURE ALTXORRA

**GARAI HISTORIKOA:** herria handitu behar hartan, padura eta itsasoarenak ziren hainbat lur lehorte zituzten, eta haien gainean eraiki zuten. Baina itsasoak berea dena eskatzen omen du beti, eta hala gertatu zen. Zenbait urtean, uholde bortitzak jasan zituen he-



riak. Oso kalte handiak izateaz gain, jendea itota ere hil zen. Konponbideak eztabaidatzen urte luzeak igaro ondoren, beste neurri batzuen artean, ibaia desbideratzea erabaki zuten.

GAIA: eta nondik dator Oiartzun ibaiaren ura? Errekei jarraituz, erreka-toak aurkituko dituzte, eta haietatik gora herriko mendiak. Era berean, herri-gunean eta handik kanpo dauden parkeak ezagutuko dituzte.

Herrian dauden komunikabideak eta haien historia aztertuko dute. Gainera, herrian hain garrantzitsua eta entzutetsua izan den kirol arloa aztertuko dute.


IBILBIDEA: Aiako Harria Natur Parkearen barruan eta Añarbeko urtegitik hurbil dagoen Malbazarreko parajeen zehar egitea proposatzen da.

PERTSONAIA: Sara Carracelas

## 5. ORAIN, GU!

GARAI HISTORIKOA: aurreko unitatean, naturak eragindako hondamendiak ezagutu dituzte. Oraingo honetan, berriz, guk geuk eragindakoak aurkeztuko dizkiegu. Karlistaldiak, alde batetik, eta 36ko Gerra Zibila, bestetik. Gerrate horiek herrian izan zituzten ondorioak landuko dituzte.

Gerren ondoren eraikuntza garaia izaten da, eta hala gertatu zen hemen ere. Industrializazioak izugarritzko pizkundera izan zuen. Gero eta handiagoa zen eskaerari erantzun ahal izateko, jende askok etorri behar izan zuen kanpotik. Etorrinen uholdea gertatu zen. Horrek, hirigintzan, elkarbizitzan, soziolinguistikian eta beste hainbat arlotan izan zituen ondorioak aztertuko dira.



Emakumeek eta haurrek ere lanean hasi behar izan zuten. Baserriak ere hustuz joan ziren. Emakumeek langile mugimendu hartan izan zuten parte hartzea eta haurren eskubideak landuko dituzte, besteak beste. Gaur egun beren gurasoek dituzten lan baldintzekin eta eskubideekin alderatuko dituzte.

Garai hura ere iragan zen, eta, gaur egun, zein herri mota den aztertuko da azkenik.

IBILBIDEA: lantegi zaharren inguruak ezagutzea proposatzen da. Haietako asko desagertu egin dira jada. Hala ere, haien izenak geratu dira, haien lekuan eraiki ziren plaza, gune eta abarri izena eman baitiete.

PERTSONAIA: Joxepa Antoni Pertriarena.

## 6. ETORRIKO DIRENAK

Azkeneko unitatean, aurreko gutzia berrikusten da. Lehenago, XXI. menderako trantsizioa noiz hasi zen eta nola sortu zen aztertuko dute.

Ondare kulturala aztertzen aritu dira ikasleak urte horietan guztietan. Ondarearen adierazpide nagusia, edo ondarea osatzen duten adierazpide guztiak biltzen dituena, zalantzarik gabe, euskara da.

Aizpitarren herriko lehen biztanleek euskaraz jarduten zuten, eta euskaraz jarduten dugu gaur egun ere. Tarte-



an joandako urteetan, beste leku batzuetatik gure herriaren garapenean laguntzera etorri diren lagunek beren hizkuntzak ekarri dituzte. Horregatik, gaur egun, euskararekin batera, beste hizkuntza asko entzun daitezke herriko kaleetan.

## Euskararen inguruko sentsibilizazioa landu nahi da unitate honetan.

Euskara, eta berarekin batera bizi diren gainerako hizkuntzak kontuan hartuta.

Historian euskarak bizi izan dituen egoeren gaineko hainbat informazio eskaintzen da unitatean. Auzoetan euskarak duen presentzia, euskaldunak eta euskaldunak ez direnen arteko datuak, eta abar.

Ondoren, ikastetxean, ikasleen etxeetan, auzoetan eta kalean euskarak bizi duen egoera ezagutzeko eta haren gainean hausnartzeko hainbat jarduera aurkeztu dira. Baita norberaren euskararekiko harremana eta bakoitzaren bizitzan duen presentzia areagotzeko beste hainbat ekinbide ere.

Atzera begiratu ondoren, aurrera begiratzeko tenorea heldu da. Ikasleek ezagutu dituzte historian herriak jasandako aldaketak, eta badakite herritarrek zein arazori aurre egin behar izan zioten.

Gure ikasleak izango dira gaurko eta biharko herritarrak, urte batzuetan haiei egokituko zaie herriaren nondik norakoak definitu eta erabakitzea. Zein itxaropen eta zein nahi ote dituzte? Nolako imajinatzen ote dute izango dela herria aurrerantzean... eta nolako iza- tea nahiko ote lukete? Horren guztiaren gainean jarduteko gonbitarekin amaitu nahi izan da unitate bilduma hau.



## Adin desberdinetako haurrentzat prestatutako ipuin kontaketa dramatizatua

### BI IKUSKIZUN MOTA

6-7-8-9 urtekoentzat

(Ainara eta Urko)

9-10-11-12 urtekoentzat

(Lipus eta Miren)

### Egitasmoaren sustatzaileak:

Artedrama eta

Dejabu Panpin laborategia

### Informazio gehiago:

Xabino Alkorta (+34) 615 779 511

info@artedrama.com

www.artedrama.com

### AKTOREAK

Ander Lipus

Ainara Gurrutxaga

Miren Gaztañaga

Urko Redondo

# hh udako topaketak

Aurtengo nobedade nagusia “**Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak? FOROA** izan da. Espazio Irekiaren Teknologia erabiliko da. Foroak bi helburu ditu: 1. Espazio Irekiaren Teknika ikastea; 2. Herritar askok “Etorkizunera begira, nola hezi beharko genukeen” dugun kezka gainean aritzea.

Horrez gain, hainbat ikastarotan oraindik ere tokia dago eta izena ematea posible da. Horien artean hauek daude: Euskara ebaluatzeke proba; Idazmena lantzen: sormena eta ekoizpena; Lumatik ahora, ipuinak; Berrikuntza Haur Hezkuntzan sentikortasunaren bidez”; Familia eta irakasleriaren arteko harremanak; Osasun mentala guztion eskubidea; Konpetentzia matematikoa lantzen”; Maskaragintza; Autismoa; GIMP: irudiak tratatzeko; Irakaskuntza



2.0; IRRIAK atera argazki eta bideoi; Adimen emozionala; Yoga; Jai ospakizunetan dantzan; Zertan jolastuko gara; Antzerkia...

Informazioa eta izena ematea:  
**www.hikhasi.com**



Ume-eramaileak eta Haziera Portabebés y Crianza



## Ume-eramaileak eta Haziera

[www.meitaimaitie.com](http://www.meitaimaitie.com)



Ekainak 3, 4 eta 5ean BIOTERRAn egongo gara gure dendako produktuen inguruko argibideak emateko. Eta nahi dituzuen ume-eramaile ezberdinak probatzeko aukera ere eskainiko dizuegu. Ekainak 3 ostirala, 17:00etan “Nola lortu haziera iraunkor bat?” hitzaldia.

Tel>627 418 907> 635 700 986 @> info@meitaimaitie.com Ataun (Gipuzkoa)

MEITAIK BANDOLERAK  
ESTALKIAK MOTXILAK  
FULARRAK MUSELINAK  
OIHALEZKO PARDELAK  
OSAGARRIAK JOSTAILUAK

Nahi izanez gero, tailer informatiboak egiten ditugu. Edozein lekutara mugitzeko prest gaude, eta banakako arreta eskaintzen dugu.



## Zer da garrantzitsuen irakasleak ongi prestatzeko?



Hiru gauza proposatzen ditut nik irakaslegaiak ongi prestatuta irten daitezen: eredu errealista lantzea, hausnarketari garrantzia ematea eta arlo pertsonala profesionalarekin batera lantzea. Banan-banan azalduko ditut hirurak ondorengo lerrootan.

### Eredu errealista

Hasteko, irakasleen prestakuntzan ikuspegi berri bat ezarriko nuke: ikuspegi errealista. Gaur egun, hiru ikuspegi daude irakaslegaien prestakuntzari dagokionez: eredu tradizionala, bate-tik, eta horren helburua teoria praktikara itzultzea da; praktikan oinarritutako ikuspegia, bigarrenik; eta, hirugarrenik, ikuspegi errealista, etorkizuneko irakasleen esperientziaren eta jakin-minaren bidez teoria eta praktika batzea helburu dituen ikuspegia. Hirugarren hori dago, nire ustez, ikaslearen ikuskera konstruktibistetatik gertuen. Euren jakintza eraikitzeko, eurek munduarekiko duten ikuspuntuaz haus-



**Fred A. J. KORTHAGEN**  
HOLANDAKO IRAKASLEEN HEZITZAILEA

nartzeko eta norberaren nortasuna garatzeko eta bizitzako helburua bilatzeko euren gaitasunean konfiantza duten ikasleak nahi baditugu eskoletan, uste dut irakasleen hezitzaileek hirugarren ikuspegi hori hartu beharko luketela eredu, etorkizuneko gure irakasleen ikasketetan ezaugarri horietan beretan sakondu nahi bada.

### Hausnarketaren garrantzia irakasleriaren ikasketetan

Irakasleriaren ikasketetan hausnarketak duen rola da nire proposamenaren bigarren ardatza. Ikuspegi errealistaren oinarritzeko ezaugarria da hausnarketa sistematikoetan oinarritutako esperientzietatik ikastea, ikasketa iraunkor bat lortzeko gaitasunean laguntzen baitu. Hausnarketa sistematiko eta efektiboa ikasi egin behar den zerbait dela nabarmendu dut: norbana-kobakoitzak hausnartzeko bere era gara dezake, modu horretan, bere esperientzietan oinarritutako ikasketen kalitatea hobetzeko. Hausnarketaren muina irakaskuntzaren alderdi inkontzienteak kontziente egitea da, pertsonak sentiberagoak izan daitezen hezkuntza aroko egoera garrantzitsuen aurrean.

ALACT ereduan (Action, Looking back on action, Awareness of Essentials aspects, Creating alternative methods of actions eta Trial izenen iniziale-tatik



datorkio izena ereduari), etorkizuneko gure irakasleen hausnarketarako euskarri moduan erabiltzen dugun eredu horretan, hirugarren fase garrantzitsuari “oinarrizko alderdien kontzientzia” esaten zaio, eta ez kontzeptualizazio abstraktua.

Ereduaren 2. fasean, etorkizuneko irakasleek euren pentsamenduari, sentimenduari, nahiari eta ekintzari buruz hausnartzen dute, eta baita euren ikasle- alderdi horiei buruz ere. Irakaste- an zenbait zantzuren arabera jokatzeko dugula jabetzea da helburua, kontzientzia hartzea; zantzu horietako batzuk norberarengandik datoz, haserrea edo urduritasuna, adibidez. Horixe da, hain justu, irakasle berriei sarri zailena gertatzen zaiena: irakasten duten bitartean, askotan ez dira kontziente euren sentimenduez eta beharrez, ezta euren ikasle- en sentimenduez eta beharrez ere. Hausnarketari buruzko gure ikuspegia norberaren alderdi inplizitu horiei buruzko kontzientziaren garapena estimulatzen saiatzen da, irakasle izateko prestakuntza prozesuan ikasi dituzten teoriak baino eragin handiagoa dutela uste baitugu. Sentimenduei buruzko kontzientzia garatzea beharrezko ikusten dugu irakasle enpatiko bat izatera iristeko lanean.

Bigarren faseetik hirugarrenetarako trantsizioa hausnarketa prozesuko zati

garrantzitsua da. Irakaskuntzako arazoak norberaren pentsamenduaren, sentimenduaren, nahiaren eta ekintzen arteko desadostasunetatik edota alderdi horien eta ikasle batek izan ditzakeen alderdien arteko desadostasunetik datozela sinetsirik, gure ikasleak animatu egiten ditugu, desadostasun horiek aurki ditzaten.

### Ikasketaren alderdi pertsonala

Orain arte esandako guztia nire proposamenaren hirugarren ardatzarekin loturik dago, ikasketaren alderdi pertsonalarekin. Ikasleak, etorkizuneko irakasleak eta irakasleen hezitzaileak gizakiak dira, euren beldur, itxaropen, balio eta egiteko konkritu eta indibidualekin, eta horrek ez du soilik haien jarreraren eta ikasketan eragiten, askotan ezaugarritu egiten baititu jarrera eta ikasketa horiek. Ziurrenik, denbora luzean ezaugarri arrazional eta kontzientzetan erreparatu dugu, alderdi gizatiarra kontuan izan gabe.

Nire egiteko pertsonalak lotura du haurren zaintzarekin eskoletan. Denborak erakutsi dit zeinen garrantzitsua den haurren oinarritzko ezaugarriak garatzea eta ezaugarri horiek nortasun eta egiteko bati loturik garatzen laguntzea. Berrito ere, eredu hori erabili behar dugu etorkizuneko irakasleekin egingo dugun lanean, eta baita geure


**Prestakuntza ona ezin da tekniketan oinarritu; prestakuntza ona nortasunean eta irakaslearen osotasunean oinarritzen da.**



hausnarketa propioetan ere, irakasle- en hezitzaile lanean. Horregatik eskatu dut arreta jartzeko oinarritzko hausnarketan, adibidez, tipularen ereduaren maila guztietan oinarritutako hausnarketan, eta adituaren roletik atera eta sentibera izaten ausartzeko.

Tipularen eredu literaturan ‘Batesonen eredu’ esaten zaionaren egokitzapena da, nahiz eta Gregory Batesonek inoiz ez zuen argitaratu eredu hori. Sei hausnarketa maila bereizten ditu eredu horrek, eta erakusten du gaitasunei buruz soilik aritzea mugatuegia dela.

Irakasleek inguruneari buruz hausnar dezakete (lehen maila), adibidez, ikasgela edo ikasle bati buruz; beren hezkuntza-jarreraz (bigarren maila), edo beren gaitasunez (hirugarren maila).



## Irakasle izango direnen prestakuntza prozesuaren

ikuspegia pertsonarengan oinarritzen da, eta ez gaitasunetan; izan ere,

beste ikuspegiak, askotan, gaitasun zerrenda batzuk besterik ez dira izaten.

la). Hausnarketa are sakonagoa egiten da azpian dagoen sinesmenari buruzko hausnarketa egiten denean (laugarren maila), eta pertsona bakoitzak bere nortasuna (pertsonala eta profesionala) ikusteko duen moduarekin erlazioatzen denean (bosgarren maila). Azkenik (seigarren maila), bakoitzak munduan duen lekuaz hausnar liteke, irakasle bakoitzaren egitekoaz. Maila

transpersonala da hori (batzuetan, espiritualtasunaren maila deritzo), norbanakoarengandik haratago doan gauzeekin lotuta baitago. Irakaslearen inspirazio pertsonalari erreferentzia egiten dio maila horrek, haren idealei eta helburu moralei. Maila sakonenetan ageri dira pertsona bakoitzaren oinarritzko ezaugarriak. Esate baterako, ikasleei beren buruarengan konfiantza izaten laguntzeko zereginak lotura handia izango du maiz sentiberatasunarekin, enpatiarekin, iraunkortasunarekin eta antzeko ezaugarriekin.

Irakasleentzat garrantzitsua izan daiteke euren oinarritzko ezaugarriez jabetzea, modu sistematikoagoan eta eraginkorragoan erabili ahal izateko. Argi dago, hori kontuan hartuta, irakasle izango direnen prestakuntza prozesuaren ikuspegia pertsonarengan oinarritzen dela, eta ez gaitasunetan; izan ere, beste ikuspegiak, askotan, gaitasun zerrenda batzuk besterik ez dira izaten.


Tickle-k honako hau dio (1999, 136): "Irakaskuntza bere horretan izan dadin, irakaslea da oinarria, pertsona

den aldetik", eta gero eta gehiago, ikerlariak eta irakasleak hezitzaileak ere hala onartzen dute. Palmer-ek honako hau dio (1998, 10): "Prestakuntza ona ezin da tekniketan oinarritu; prestakuntza ona nortasunean eta irakaslearen osotasunean oinarritzen da". Nire iritziz, pertzepzio horiek aldatu egin beharko lituzkete irakaslearen prestakuntzako praktika tradizionalak, eta tipularen ereduaren sakoneko maila arreta handiagoa jartzeak beharrezkoa izan behar luke irakaslearen nortasunaren eta profesionaltasunaren arteko oreka lortu ahal izateko.

Idealen galerak eta horiek lortzeko babesik ez izateak eragin handia du irakaskuntza higitzeko eta uzteko orduan. Palmer-ek dioen moduan (1998), "Zer zentzu du?" galderari erantzuna aurkitzea ez da luxu bat, baizik eta behar bat, irakasleek, gorputz eta arima, euren lanbideari eskainirik jarraitzen badute.

Pertsonak bere ongizate eremuak ugaritzeko nahia azaltzen duenean soilik egin ahal izango du benetako aldaketa. ●

### Tipularen eredia



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

ekaina  
berriak

# Hizkuntza-eskubideen aitortzarako eta defentsarako estrategiak



2011ko ekainean hizkuntza-eskubideei lotutako bi gertakariren urteurrena beteko da. Batetik, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 15. urteurrena eta bestetik, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren 10. urteurrena. Behatokiak bi urteurrenak uztartze-

ko bi ekimen antolatzea erabaki du. Alde batetik, *Hizkuntza-eskubideen aitortzarako eta defentsarako estrategiak* izenburupean nazioarteko II. Sinposioa egingo du Donostiako Miramar jauregian, ekainaren 8an eta 9an.

Sinposio horretan, hizkuntza-komunitateek beren eskubideen aitortzarako eta bermerako nazioarteak zernolako tresnak sortu dituen aztertuko da, baita beste hizkuntza-komunitate batzuetako gizarteak hizkuntza-eskubideen babeserako abian jarritako dinamikak eta ekimenak ere. Euskaraz gain, galiziera, okzitania, bretoiera eta katalana izango dituzte mintzagai lehen egunean. Bigarrengoan, berri-

Hizkuntza-eskubideen definizioaren eta babeserako tresnen bila mintzatuko dira Euska Herriko nahiz Herrialde Katalanetako adituak. Hizkuntza-eskubideen deklarazio unibertsalaren edukiez, berrikuntzez, sorreraz, bilakaeraz ere mintzatuko dira.

Bestetik, sinposioaz gain, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren urteurrenari lotutako bigarren ekimen bat ere antolatu du Behatokiak ekainaren 9an, arratsaldeko 18:00etan, Martin Ugalde Kultur Parkean. Bertan, euskalgintzak eta nazioarteko gonbidatuek deklarazioaren berrespena egingo dute.

## Kulturaniztasuna eta eleaniztasuna, aztergai



LAB sindikatuaren Ipar Hegoa Fundazioak, Irakaskuntza eta kulturantzatasuna eta Irakaskuntza eta Eleaniztasuna jardunaldiak antolatu zituen Donostian eta Iruñean, apirilean eta maiatzean.

Jardunaldietan burututako hitzaldi eta tailerretan, hainbat adituk ikasle etorri berrien beharrei erantzuteko jo-

kamolde eta ildoak; minorizazio politikoa eta kulturalaren Kataluniako errealitate eta esperientziara hurbilketa; Eleaniztasun gehigarriaren erronka: alderdi psikolinguistikoa, soziolinguistikoa eta psikosozialak; eta esperientzien atalean, Ikastolen eleaniztasun ereduaren oinarriak eta ezaugarriak eta Nafarroan indarrean dagoen TIL programa aztertu

zizuten.

Guztiek ere, munduan zabaldu den globalizazioaren prozesuari eta migrazio fenomenoaren ezaugarri berriei erantzuteko eskola ereduak eta hizkuntzen irakaste-ikaste prozesuak izan zituzten hizpide.

Izan ere, eleaniztasuna eta kulturantzatasuna denen ahotan baldin badabil ere, alde asko dituzte eta haiei erantzuteko era desberdinak daude.

Bi arlo horiek, kulturantzatasuna eta eleaniztasuna, hain zuzen, datozen urteetan eskolaren erronka nagusienetakoak izango dira, ezbairik gabe.

Bertan hitz egin zutenen arabera, gaitasun komunikatibo handiagoa duten ikasle eleaniztunak sortzen asmatu beharko du eskolak. Betiere, Estaturik gabeko nazioa izanik gurea, eta gutxitua gure hizkuntza, kontu handiz diseinatu beharko dira irakaste-ikaste prozesuak eta haien ingurukoak.

# Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Gaitasun handiko elkarteak bildu egin dira

Gaitasun handiko seme-alabak dituzten familiek osatutako Alcagi (Gipuzkoa), Aupatuz (Araba eta Bizkaia) eta Fanjac-Euskadi (Gipuzkoa) elkarteek Gaitasun Handiko Elkarten Plataforma osatu dute, helburu bikoitzarekin: batetik, gaitasun handikoen errealitatea zabaltzea eta, bestetik, ikastetxeek gaitasun handiko ikasleei erantzun egokia ematea. Helburu hauek gauza daitezten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zuzendutako dekalogoia osatu dute, gai horren inguruan LOEk agintzen duena betetzeko neurriak har daitezten.

Plataformak jakitera eman duenez, Hezkuntza Ministerioaren arabera, ikasleen %2tik %5era gaitasun handikoa da, eta datu estatistiko horien arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 6.800 eta 17.000 ikasle bitarte gaitasun handikoak dira. Hala eta guztiez ere, EAeko hezkuntza administrazioak gaitasun handiko 73 ikasle baino ez zituen onartuak 2009/10 ikasturtean. Ondorioz, plataformak orain arte jaramonik egin ez zaien ikasle kopuru handiaren eskubideak babestu nahi ditu.



## Gipuzkoako eskola txikiek Abaltzisketan egingo dute jaia eta aldarrikapena



Ekainaren 12an Abaltzisketan ospatuko dute Gipuzkoako eskola txikiek euren jaia, Txalburu eskolak eta bertako ikasleen gurasoek antolatutak. Festa eta aldarrikapena batuko dira igandean, beraz, Abaltzisketan.

10:30ean hasiko da jaia harrera ekitaldiarekin, eta ondoren haur jolasak izango dituzte herriko hainbat bazterretan. Bazkariaren ondoren Pirritx eta Porrotzek emanaldia egingo dute, eta handiagontzat malabare saioa egon-

go da. Era berean, egun osoan zehar eskola txikietako ikasleek eginiko eskulanen erakusketa izango da ikusgai.

Gipuzkoan 27 eskola txiki daude gaur egun, eta horietako bat da Abaltzisketakoa. 37 ikasle ditu, lau gelatan banaturik, eta jangela zerbitzua ere badute, 1999an ireki zuten Amezketakoa Zumardi eskolaren ikasgela moduan. Gaur egun haur hezkuntza eta lehen hezkuntza osoa ikas dezakete bertako haurrek

## Ultraheroien udalekuak, Bizkaian

Aurtengo udara begira, Eragintza Kultur Erakundeak eta Bizkaiko Urtxintxa Eskolak Udaleku itxietarako eskaintza berezia luzatu dute: Kostaldeko eta basoko ultraheroien udalekuak. *Mundua eraldatzen goaz!* lemapean, Aulestiko Atxagarai eta Abanto-Zierbenako Kotorrio, balioen ultraheroi enbizileku izango dira astebeteko ego-

naldian. Astialdi hezitzailean oinarritutako udaleku honetan, 8 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gaztetxoek parte har dezakete, eta lau txanda proposatu dituzte adin tarteen arabera.

Udaleku hauetan, natura aztertu eta zaintzeko misioa izango dute haurrek, eta elkarbizitza, hezkidetasuna, kritikotasuna, partaidetza aktiboa, kultu-

rartekotasuna, ingurunearekiko eta elkarrekiko errespetua, emozioak, baikortasuna eta inklusibitatea landuko dituzte. Horretarako euskara izango dute bidelagun. Euskal kulturaren transmisioan eta euskararen normal-kuntzan, erabileran eta gozamenen bilduko dituzte indarrak. Informazio gehiagorako: [www.eragintza.biz](http://www.eragintza.biz)



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

**>>> Eusko Jaurlaritzak haurtzaroaren eta nerabezeroaren behar eta eskariak ikerketa egin berri du. Ikerketaren ondorioen artean, hauek azaldu dira prentsan: -Nerabeek guapo egon nahi dute besteen onarpena jasotzeko-, -Euskal gazteek haien irudi fisikoa zaintzen dute irainen eta bazterkeriaren beldur- eta -Etorkinak bazterketa sozialarekin lotzen dituzte haur eta nerabeek-. Zure inguruko ikasleek edo hurrek horrelako lehentasunak dituztela uste al duzu?**

**> Eta nork ez?**

Ez naiz nerabea, aspaldi utzi bainion izateari. Hala ere, guapo egotea atsegin dut. Eta nork ez du, ba, guapo egon nahi? Hala ere, ederra izatea interesgarriagoa dela iruditzen zait, barrutik azalarazten den edertasunak ez baitu mugarik. Muxuak denontzat, ederrak! *Mikel P.*

**> Zu bai ederra, arraio!**

Udaberriko freskura antza eman dut zure hitzetan. Edertasuna nahi duenik baina ederragorik ez baitago inon. Muxuak bueltan zuretzat, politta! *Mila K.*

**> Zer eta nola galdetu, erantzuna halakoa**

Nola liteke gai beretsuaren gainean aritzea eta hain ondorio desberdinak ondorioztatzea?

156. hik hasiko gaian, Kontxi Medranok zuzentzen duen nazioarteko ikerketa bat agertzen da. Han, nerabeek alaitasuna eta umorea, nortasuna, adimen azkarra, lana eta errebeldia, balio gisa, erakartasun fisikoaren aurretik jartzen dituztela ondorioztatzen da.

Orain, aurkezten zaigun azterketaren ondorioa bestelakoa da. Zerk eragiten du hain erantzun desberdin jasotzea? Ez al da izango zer intentziorekin prestatzen diren galdeketak, nola egiten diren galderak eta zer kontestuan egiten diren?

Galdetzaileek hori guztia aurretik badakitela uste dut. Hala bada, galdera da, zer asmorekin egiten dira galdeketak, azterketak, ikerketak...?

Biintentziobururazten zaizkit niri: 1. Egoera ezagutu nahia eta gizarte hobea egiteko egin nahi den ahalegina nahi dutenak. Hau da, asmo hezitzailea dutenak. 2. Beste asmo batekin egindako ikerketak izatea, interes partikularrei edo pribatuei erantzuten dietenak, nahiz eta entitate publikoak izan egiten dituztenak. *Miel Anjel*

**> Estetika ala etika?**

Bi gauza desberdin dira estetika eta etika. Batzuk estetikaz ari diren bitartean: zaindu, guapo egon, itxura ona, ederra... beste batzuk etikaz ari direla iruditzen zait: nolako pertsona, dituen baloreak, besteen aurrean izan beharreko erredua... Eta bai, bi ikuspegiak zeharo desberdinak dira. Hala ere, ez daude kontrajarrita. *Maidor Peña*

## Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

**>>> Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?**

## Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Xola eta Ameriketako izeba

Bernardo Atxaga  
EREIN

Hurrei eta gaztetxoei zuzendurik, “aurreiritziei buruzko kontakizun errealista” idatzi du Bernardo Atxagak, “portaera demokratikoak bultzaten dituen”. *Holaxe bizi da Xola* saileko laugarren liburua da hau. Xolak txakur librea dela diokontakizunaren hasieran, baina Clementine Ameriketako izeba etxera bisitan joatean aurreiritziz beteta bizi dela konturatuko da. •



## Etxeko hautsa

Anjel Lertxundi  
ALBERDANIA

Hautu moralen inguruko galderez eta zalantza jositik, bere belaunaldiaren “erradiografia posible bat” idatzi du Anjel Lertxundik. Nobelako pertsonaia nagusiak hogeit urte lehenago egin zuena aitari kontatzea erabaki du: Franco hil aurreko urteetan, adiskide baten eskariari erantzunez, ETako bi kideri laguntza eman zien. •



## Gilza

Arrate Egaña  
EREIN

Zarauzko Udalak antolatzen duen Lizardi sariaren aurtengo edizioa irabazi du Arrate Egañak liburu honi esker. *Gilza*-k Nikoren bizipenak kontatuko ditu, urtebetetzeko oparian jasoko duen etxeko giltzak sekula ahaztuko ez dituen bizipenen atea zabalduko baitio. 8 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago liburua, eta ilustrazioak Mari Mar Agirrerrenak dira. •



## Josetxo hargina

Mixel Murua  
ELKAR

Josetxo gizon indartsua zen, eta hargina ogibidez. Herrian denek mires-ten zuten, oso indartsua zelako. Eguna harriak lantzen ematen zuen Josetxok, burdinazko mazo handi batekin kinki eta kanka. Josetxo harginaren kontakizuna Antton Olariagak ilustratu du, eta 6 urtetik gorako hurrei zuzenduriko ipuina da. •



## Joan da negua

Mikel Iburguren  
SUSA

Ezustean egokitu zaion bolada gogor bateko sentimenduak, gogoetaketa “egia txikiak” bildu ditu Iburgurenek *Joan da negua* poesia liburuan. Heriotzak presentzia handia du liburuan, eta baita minbiziak ere. Horrez gain, gizartearen eta gizakiaren inguruko gogoe-tarik ere bada Iburgurenen laugarren li- buru honetan. •



## Zer barkaturik ez

Alberto Ladrón Arana  
ELKAR

Idazkera arin eta erritmo biziarekin, idatzi du Ladronek polizia nobela hau. Bolada txarra darama Mikel Izu protagonistak: andreak utzi zuen, depresioa du, anaiaren alprojakeriak jasan behar ditu... Anaiaren etxean behatz moztu eta odoldu bat aurkitzen duenean hasiko dira gauzak are gehiago okertzen eta aldrebesten. •

# ... nora joango gara?

## Miarritzeko itsas museoa

**Miarritzeko itsas museoaren anbizioa itsas munduari buruzko jakintza ahalik eta jende gehienari erakustea eta zabaltzea da. Eta helburu ludiko eta pedagogiko horretan haurrengan arreta berezia jartzen du, horregatik, ikastetxeentzako bisita leku aproposa izan liteke Lapurdiko kostako museoak eskaintzen duena. Orain, gainera, hil honen amaieratik aurrera, eraberritze lanak amaiturik, espazio bikotza hartuko du 1935ean zabaldu zuten Miarritzeko itsas museoak, itsasertzeko leku paregabe.**

Begiak zabal-zabalik eduki behar dira bisita honetan zehar, marrazo edo fokaz gain, organismo ezkutu txiki-txikiak bizi baitira Miarritzeko itsas museoan, edo baita ingurunera kamuflatuak diruditen arrain lauak edo itsas zaldiak ere. Horiek guztiak ezagutzeko, museo bere horretan bisita liteke goiko terrazetatik hasi eta beheko akuariora, edo beheko akuarioratik hasi eta laugarren solairuko terrazara. Baina museoak berak bi ibilbide proposatzen dizkiete ikastetxeei, ordu eta erdi eta hiru ordu artean egiteko: lehenengobisitak, itsas bizitza ezagutzeko balio du; eta bigarrenak, gizakiak itsasoarekin izan duen harremana aurkezten digu.

Orain arte Bizkaiko Golkoko itsas



bizitza erakusten zigun Miarritzeko museoak, 150 espezetik gora; baina aurrerantzean, beste itsasoetako arrainak eta espezieak ere ikusi ahal izango dira bertan, bai Itsaso Barekoak nola Atlantikokoak ere.

### Alga, marrazo, legatz eta itsas zaldiei begira

Itsas munduan barrena proposatzen diguten bisita hasi eta berehala ohartuko gara itsasoan ez direla soilik arrainak bizi, ezta karramarro, barraskilo, itsas triku, itsas izarrak edota olagarroak bakarrik ere; Bizkaiko Golkoan bertan, belakiak, anemonak edota gorgonak bizi dira; edo planktona, zetazeoak, landareak.... Eta espezie hauetako bakoitzak itsasoan bizitzeko, elikatze-ko eta mugitzeko bere era garatu du, ai-

rezko ingurunean bizi garen izakion-gandik oso desberdina, eta ikasleak berehala jabetuko dira horretaz. Izurde baten hezurdura ikus liteke, adibidez, zeinen arina den. Izan ere, itsasoan bizi denez, zetazeoek ez dute hain hezurdura sendoa behar, baina, uraren dentsitateari aurre egiteko fisiko berezia garatu behar dute. Aldiz, airezko ingurune batean mugitzeak bestelako energia eskatzen du.

Marrazo inudea, edo marrazo grisa Miarritzeko akuariora ikus litezkeen zetazeo batzuk, eta arrain hezurdunak ere ikusi daitezke, sardinak, mihi-arraina, bisigua, itsas kabra, itsas zaldia edota itsas aingira ere. Animalia hauek bizi daitezen elikatu egin behar dira, bizidunak jaten dituzte, animaliatik jatorria edo landare-espezia diren izaki bizi-



dunak. Horregatik, landaretza handia ikus liteke akuarioan.

Museo honetako espezie izarrak edo pribilegiatuena fokak edo itsas txakurrak dira. 150 metro kubikoko akuarioan sei foka daude gaur egun Miarritzeko museoan, eta egunero jendaurrean ematen diete jaten (10:30ean eta 17:00etan) museoaren goiko terrazan, ikuslearen gozamenerako.

### Balea arrantzatik, surfera

Museoak eskaintzen duen bigarren ibilbideak gizakiaren eta itsasoaren arteko harremana ezagutzeko bisita proposatzen du, lehen solairuan urpekari-tza, ozeanografiaren historia eta garapena, eta arrantza aztertzen dira bereziki. Bigarren goan, aldiz, geologiaz, meteorologiaz eta ozeanoez gehiago jakiteko aukera eskaintzen zaigu.

Museoak erakusten duen eran, euskal herritarrek antzinetatik itsasoa elikadura iturri izan dute: lurretik nahiz txalupa txikietako arrantzutik hasi, eta XII. mendean Ternuara joaten ziren balea arrantzaleak dira horren adibide. Museoak leku berezia eskaintzen dio balea-arrantzuaren euskal epopeiari, eta zortzi mende atzera bidaiatzea proposatzen dio ikusleari (lehenago, 670ean balea olio merkaturatzen zen Euskal Herrian). Horrez gain, Groenlandiako bakailao-arrantzuko abenturak edo Atlantiko tropikalean eta Indiako Ozeanoan hegaluze-arrantzu bizi izandako abenturak kontatzen zaizkigu.

Baina gizakiak itsasoarekin izan duen harremana ez da arrantzura mugatzen, eta are gutxiago Miarritzen. Hala bada, hiriak surfarekin izan duen eta duen harremanari ere lekua eskaintzen dio itsas museoak. Izan ere, Miarritzen egin zuten lehen surf taula 1935ekoa da, eta horietako bat ikus liteke museoan berta, ordutik baitatorkio hiriarri gaur egun bizi-bizi dagoen zaletasuna.

Museotik atera, eta barruan ikasitakoan sakontzen jarrai dezakete ikasleek kanpora irteetan, Miarritzeko itsasertzak eskaintzen duen ikuspegi paregabek. ●

## MIARRITZEKO ITSAS MUSEOA

Esplanade du Rocher de la Vierge

64200 MIARRITZE (Lapurdi)

Tel.: 07 33 559223334

07 33 559240259

Fax: 07 33 559244198

e-mail: [pedago@centredelamer.fr](mailto:pedago@centredelamer.fr)

Web gunea: [www.museedelamer.com](http://www.museedelamer.com)



### ORDUTEGIA

9:30 - 12:30

14:00 - 18:00

Udan ordutegia aldatu egiten da.

Museoa urteko egun guztietan dago irekita urtarrileko bigarren astean izan ezik.

### Ikastetxeentzako eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- Bisita gidatuak egiten dituzte euskaraz, aurrez hala eskatuz gero,
- Baita bisita tematikoak ere.
- Museoak berak irteerak antolatzen ditu itsasertzera, marea gorabeherak aztertzeko.
- Museoan lo egiteko aukera dago, "Arrainekin Lotan" egitarauaren barruan. Bertan hezkuntza egitarau bat lantzen da eta afaria eta gosaria barne egoteaz gain, tunelean lo egiteko aukera eskaintzen da): 40? / ikasleko. Arrainekin Lotan egitarauan ostegun eta ostiraletan har daiteke parte.
- Bertan lantzeko unitate didaktikoak dituzte frantsesez.
- Donostiako akuarioak eta Miarritzeko museoak elkarlanean egiten dute lan, eta edukiak ez errepikatzeko proposamenak dituzte. Une honetan itsas ingurumenari buruzko heziketan teknologia eta komunikabide berriak euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz erabiltzeko egitarau bat garatzen ari dira elkarrekin.
- 20 ikasletik gorako taldeen kasuan, ikasleko tarifa 4,40 eurokoa da (ekaineko handitze lanen ondoren 6, 50 izango da). 30 lagunentzako gida baten zerbitzua 55 euro ordaindu behar da. Webgunean datoz tarifa guztiak.



# atzeko atetik



**Maite IDIRIN**

ABESLARIA

Nire hezkuntza denbora Francoren diktadurapean igaro zen. Lehenik, Ugao-Miraballeseko eskolan, gero Bilbon. Irakurri, idatzi, matematikak, geografia, Formación del Espíritu Nacional (espainola, noski), historia (espainola ere) eta abar. Egunero, eskolak hasi aurretik Cara al Sol eta Espainiako ereserkia plazan kantatzen genituen neskak eta mutilak bereiztuta. Viva Franco, Viva España eta Arriba España aldarrikatuz bukatzen zen gure eguneroko eskolan sartzearen preludea. Ostegunero apaiza ere gurekin genuen giristino onak izaten erakusteko.

Botere frankistaren eskolako hezkuntzak erakusten ez zituen garrantzizko gauzak eskolatik kanpo ikasi nituen: etxean, lehenik, euskara, euskaldunak ginela, eta horregatik, gure aita eta osabak gudariak izan zirela lehenik eta gero Madrilen preso egon zirela. Gero, gazte denboran, herri mugimendua-

## Herriaren jakintza

nean, beste honako hauek ikasi nituen: gure musika, kantak, dantzak, literatura, eta abar. Herria eta langileak alde batetik, eta bestetik ugazabak, polizia eta boterea zeudela. Funtsean, hezkuntza, bizitza osoan areago gauzatzen joaten baita.

1979an Boterea izenarekin kantu bat burutu eta argitaratu nuen, Ahizpatasuna izeneko diskoan. Urte haietan euskal inteligentziako jende anitz ibilginen Lemoizko zentral nuklearraren aurka, eta hainbat manifestaldi eta kantaldi egin genituen hura salatze eta eraikuntza hura abian jartzeak ekar zezakeen hondamendiaz jendeari kontzientzia hartuarazteko.

Gogoan dut, baita ere, garaiko gure herriko boteretsuek (enpresariak bezala politikoe) ekologista mugimenduro ezjakinen kolektibotzat emana, azajale gisa tratatzen gintuztela.

Eta ez zen gurean soilik ekologistekiko tratamendu hori. Egun haietako batean gure flamendar lagun batzuekin (Walter Luyten senadorea eta Ludo Dox irakaslea) Gorlizko ostatu batean hitz aspertuan jarri ginela, lasterreko batean bi gizon sartu ziren eta gure ondoan jarri ziren. Halako batean gure senadore adiskideak, beti adi, esan zigun: horiek nederlanderaz ari dira. Nongo-

ak ziren galdetu eta flamendarrak zirela erantzun zioten. Lemoizko zentral nuklearra eraikitzen ari garen injineruak gara. Eta, orduan, arropostuz, gure lagunak zirikatatu zituen Euskal Herrian zegoen protesta giroa oroitaraziz. Haien komentarioa lotsagabeagoa izan zen: Euskaldunak ezjakinak dira modernitatearen aurrerapenenekiko. Uste dute nuklearrak euren behiak esnegabe utziko dituela, edo euren landareak eta zuhaitzak lehortuko direla. Aldiz, guk, jakintza jarraitzen dugunok, badakigu egiten ari garenak arriskurik ez duela, alderantziz, ongizatea garatzen duela.

Baina, gaur egun, Fukushima eta Onagawa nukleartegietan gertatu direnak ikusita, nor dira zuhurragoak, boteretsuen morrontza sasi-jakintsua ala herri-jakintza frogatua jarraitzen dutenak? Euskaldun herritarren arteko Tchernobyl mugimenduaren zuhurtziari esker, uranio eta plutonio modernizatuak ez ziren Euskal Herrian bizitu. Hala ere, ez gaude mehatxuetatik salbu, inguruegian baitauzkagu Garoña edo Akitaniako Blayais nukleartegiak.

Erabil dezagun hezkuntza bizitzako pragmatikan gure haurrak kritikotasunez hezteko. Nire aholkutxo horixe duzue.



**“Haurra bera da gure sormenaren piztailea, begirada biziaz, isiluneaz, mugimenduz eta barealdiaz baldintzatua da gure arteko komunikazioa”.**

Imanol Urbieta

2011

eragintza  
kultur elkarte

Basoko eta kostaldeko ultraheroien

# UDALEKUAK

MUNDUA ERALDATZERA GOAZ!



Kotorrio aterpetxea, Abanto-Zierbena. Bizkaia



Atxagarai aterpetxea, Aulesti. Bizkaia



Basoko eta kostaldeko ultraheroien

# UDALEKUAK

MUNDUA ERALDATZERA GOAZ!

www.eragintza.biz  
eragintza@eragintza.biz

2011



eragintza kultur elkarte Zabalbide 26, behe. 48006 Bilbo • T> 94 432 04 45 • F> 94 433 59 05

eragintza  
kultur elkarte



iPad 2 bat irabazi nahi duzu?  
Egizu bideo bat eta parte hartu web honetan  
[www.quieroserfp.com](http://www.quieroserfp.com)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA HEZKETA SARA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurrematrikula: Ekainaren 1etik 10era